

Kontzeju

www.oiñati.eus



berriak



@berriak



oiñati



oiñati

DEGIK

Oñatiko Udal aldizkaria | 2015eko Ekaina | 251. zenbakia



Irazan antzerki gunea

Antzerkiaz gozatu eta ikasteko gunea sortu da Oñatin

EH Bildu 10, EAJ 7

- > Gehiengo absolutoari eutsi dio EH Bilduk, zinegotzi bat galdu arren.
- > EAJk 2011n baino 539 boto gehiago jaso ditu, ordezkari bat irabaziz.
- > PSE-EE eta PPK ez dute ordezkariarik lortu Oñatiko udaletxean.



3137^{boto} eskuratuta (%51,98), garaipen garbia lortu du EH Bilduk udal hauteskundeetan, udalbatza osatzen duten 17 zinegotzietatik 10 bereganatuz. Horrenbestez, gehiengo absolutoari eutsi dio koalizio abertzale eta ezkertiarrek, eta Mikel Biainek jarraituko du alkatez beste lau urtez.

Emaitza oso ona izanik ere, poza, seguruenez, ez zen erabatekoa izango, EH Bilduk orain dela lau urte baino 400 boto gutxiago jaso dituelako, 2011n Aralarrek jasotakoak (238) kontuan hartzen baditugu. Gobernuan egoiteak sortzen duen desgasteari egotzi dio boto galera, baina, hala ere, oso positibotzat jo du emaitza, Mikel Biain alkategaiak. "Azken lau urteotan hartu ditugun erabaki inportante guztiak herritarrekin partekatu ditugu, eta uste dugu herritarrek baloratu egin dutela gure kudeaketa eredu. Oso eskertuta gaude herriak konfidantza berretsiz duelako gure taldearengan". EH Bilduk adierazi du indartuta ateratzen dela jasotako babesarekin, eta orain dela lau urte hasitako bidetik jarraituko dutela, aldaketa politiko eta sozialean sakonduz.

ZAPORE GAZI-GOZOA EAJn

EAJk oso positiboki baloratu ditu lortutako emaitzak, bai botoetan eta baita portzentaian ere iguera nabaria izan duelako. Orain lau urte baino 539 boto gehiago eskuratu ditu (%41) 9,5 puntutan igo eta ordezkari bat irabaziz.

Jeltzaleak 8. zinegotzia lortzetik oso gertu (35 boto) geratu dira, eta pena horixe dute, 10-7 izan beha-



EH Bildukoak garaipena ospatzen

UDAL HAUTESKUNDEAK

	2015	2011
EH Bildu	3.137	3.308
EAJ	2.475	1.938
PSE-EE	214	238
PP	88	203
<i>Absten.</i>	2.795	2.459

2011ko hauteskundeetan:
Aralar 238, Ezker Batua 190
eta Hamaikabat 182

BATZAR NAGUSIAK

	2015	2011
EH Bildu	2.896	3.164
EAJ	2.388	1.926
PSE-EE	250	304
PP	105	225
Podemos	273	-
Irabazi	47	160 ⁽¹⁾

(1) EB+Berdeak+LV
Aralarek 314 boto lortu zituen

EKAINAREN 13AN EGINGO DA ALKATEA AUKERATZEKO UDALBATZA BEREZIA

rrean, 9-8 izango litzatekeelako azken emaitza. Jeltzaleek oposizioan jarraitu beharko dute, baina pozik daude EH Bildurekiko aldea erdira murriztu dutelako 1.372tik (2011n) 662ra (2015).

EAJk eskertu egin du herritarrek alderdiari emandako babesa eta konfidantza. Oposizio eraitzailera eta arduratsua egiten jarraituko dutela adierazi dute, herritarrengandik gertu egonez, eta hauen iritziak eta kezak udaletxera eramanez.

KOLORE BIKO UDALBATZA

PSE-EEK eta PPK behera egin dute bototan. Sozialistek (214) 2011n baino 24 bozka gutxiago jaso dituzte, eta popularrek (86) 117 gutxiago. Biak ala biak ordezkariarik barik geratu dira. Beraz, aurreko agintaldian bezala, kolore biko udalbatza izango dugu Oñatin: EH Bilduk 10 zinegotzi izango ditu, eta EAJk 7.

PODEMOSek 237 BOTO

Batzar Nagusietarako hauteson-tziei erreparaturaz, badira datu aipagarri batzuk. Alderdi bozkatuena EH Bildu izan da (2.896 boto), udalekoetan baino 241 gutxiagorekin. EAJk 2.388 boto izan ditu, udalekoetan baino 67 gutxiago. PSE-EEK eta PPK zertxobait gora egiten dute, udal hauteskundeekin alderatuz, eta azpimarragarriena da Podemos alderdiak 273 boto jaso dituela, eta Irabazik 47.

Badirudi, beraz, aukera politiko berriek ere zeresana izan dezaketela etorkizunean Oñatin.

◀ **ALKATEA** ▶



MIKEL BIAIN



Irati Etxeberria



Borja Moïua



Nerea Zubia



Kepa Zelaia



Ana Martin



Rafael Kortabarria



Leire Zumalde



Oier Irizar



Susana Altuna



Miren Elgarresta



Lourdes Idoiaga



Amaia Erostarbe



Jon Kepa Gerrikagoitia



Ritxar Fernandez



Marijo Etxegoien



Jabi Balzategi

2015-2019
agintaldirako
udalbatza
berria

SUSANA ARREGIREN HERIOTZA | 25. URTEURRENA

Irunberri oroitzuz

25 urte betetzen dira Susana Arregi hilda agertu zenetik Irunberriko arroilan, Jon Lizarralde ETAkidearekin batera. Ordu batzuk lehenago Goardia Zibilarekin izandako tiroketan Jose Luis Hervás sargentoa hil zen.



Euskal gatazkak min handia eragin du alde guztietan: heriotzak, torturak, bahiketak, espetxealdi luzeak... Oñatiarroi oso gertutik erasan zigun gertakari horietako bat izan zen Susana Arregiren heriotza. 1990eko ekainaren 25ean gertatu zen, Irunberriko arroilan, oso zirkustantzia berezietan, eta horrek are lazgarriagoa egin zuen samina. Orduko Barne Ministro Jose Luis Corcuera emandako bertsio ofizialaren arabera, Susana Arregi eta Jon Lizarralde ETako kideek beren buruaz beste egin zuten. Hirugarren taldekidea, German Rubenach, larriki zaurituta agertu zen, buruan tiro bat zuela. “Suizidio kolektiboa”ren bertsio gutxi sinistu zuten Euskal Herrian. Ardanza lehendakariak eta Setien gotzainak ere harridura agertu zuten.

Puntu ilun, zalantza eta galdera asko daude Irunberriko arroilan gertatutakoaz. 1990eko San Juan eguaren biharamunean bertan ziren Jon Lizarralde andoaindarra, German Rubenach iruindarra, eta Susana Arregi oñatiarra, ETaren Nafarroa komandoko kideak. Eguerdiko 12ak aldera Goardia Zibilaren bi patruila gerturatu zitzaizkien identifikatzeko asmoz, eta tiroketa bat gertatu zen, goardia zibile-tako baten (José Luis Hervás sargentoa) heriotza eraginez. Beste goardia zibil bat eta Rubenach komandoko kidea ere zaurituta gertatu ziren, tiro banarekin izter inguruan.

IA 20 ORDUKO SETIOA

ETako kideek ihesari eman zioten, goardia zibilek laguntza eskatzen zuten bitartean. Handik gutxira, GAR (*Grupo Antiterrorista Rural*) talde berezietako indarrak iritsi ziren bertara. Arroilako bi sarrera-irteerak itxi, eta bazterrak maitzerai ekin zioten, heli-

kopteroa eta txakurren laguntzarekin. Arratsaldeko 20:45etan, bertsio ofizialaren arabera, German Rubenach aurkitu zuten, saski artean, larriki zaurituta, buruan tiro bat zuela. Iluntzearekin batera eten egin zituzten miaketa lanak.

Ordurako, Irunberriko bizilagun batzuk esana zuten Seat 127 gorri bat ikusi zutela bi lagunekin herria gurtzatzen abiada bizian. Sekula ez da argitu nortzuk ote ziren.

Hurrengo goizean maiaketa lanak berrekin eta 8:45etan aurkitu zituzten Arregi eta Lizarralderen gorpuak, Rubenach aurkitutako lekutik oso hurbil. Lizarraldek tiro bat zuen buruan, eta Susanak bi. Bertsio ofizialaren arabera, ETako kideek beren burua hil zuten, irtenbiderik ez zutela ikusita. Susanak bi tiro edukitzea ere teknikoki posible zela esan zuten Barne Ministroak, Hervás sargentoiari kendutako arma semiautomatikoarekin eginak izan zirelako.



SUSANA ARREGI

> 25 urte zituen hil zenean. Bost anai-arrebatan zaharrena, Magisteritza ikasketak eginak zituen Donostian. Ikasle Abertzaleak taldearen sorreran parte hartu zuen, eta gero Jarrai eta HBn militatu zuen, harik eta etxetik alde egin behar izan zuen arte, 1987ko maiatzean, 22 urterekin. Txantxiku ikastolan egiten zuen lan, gela bereziko irakasle.

PUNTU ILUNAK

Baina beste puntu ilun asko ere badaude gertakari haien inguruan. Jon Lizarralderi egindako autopsiak frogatu zuen ura zegoela bere bizi-organoean, eta zitekeena zela itota hil izana. Gainera, handik egun gutxira Goardia Zibilak Nafarroa komandoren azpiegitua ia guztia desegin izanak ere zer pentsatua ematen du. Ez da ahaztu behar, gainera, GALen gerra zikinaren garaia oso bizirik zeudela oraindik.

Gertakari haietatik bizirik atera zen Rubenach-ek amnesia arazoak izan zituen buruan jasotako tiroaren ondorioz, eta ez du ezer gogoratzen. Arrazoi asko, beraz, ‘egia ofiziala’ zalantzan jartzeko. Irunberriko arroila ia 24 orduz setiatuta eduki zuten goardia zibilek dakite zer gertatu zen han.



Susana Arregik Txantxiku ikastolan egiten zuen lan



Susana eta bere lagun Itxaro Borda idazlea Arantzazun

KARMELO ARREGI | Susanaren anaia

“Ez genuen sinistu inolaz ere bertasio ofiziala”



25 urte dira Irunberriko gertakarietatik. Ze oroitzapen dituzu?

Tentsio handiko egunak izan ziren. Gogorrak. Galdera asko eta erantzun gutxi. Inpotentzia handia. Baina oroitzapen txarrak albo batera utzita, jendeak erakutsi zigun elkertasuna eta berotasuna gogoratzen dut bereziki.

Pena handia ere bai, noski, Susanak agur esan barik alde egin behar izan zuelako etxetik hiru urte lehenago, eta ez genuen elkarrekin berriro egoteko aukerarik izan.

Heriotza zirkustantzia berezietan gertatu izanak ere areagotu egingo zuen samina. Zaila izan al zen buelta ematea?

Zaila da, bai, baina bi aukera dituzu: hondoa jo, edo aurrera egin. Anai-arrebok elkartu ginen eta kosta ahala kosta gogorrak izan behar genuela erabaki genuen, gurasoengan pentsatuz batez ere.

Bertsio ofiziala ez zenuten sinistu, ezta?

Ez, inolaz ere. ETAko kideen jokabidea ez da sekula izan beren burua hiltzea, eta Susana ezagututa, ziur naiz ez zela halakorik gertatu. Gainera, Susanak bi tiro zeuzkala ikusita, eta bertasio ofizialean dauden kontraesanak eta puntu ilun guztiak ikusita...

Zer gertatu zen zure ustez?

Handik egun gutxira Nafarroa komandoaren azpiegitura guztia erori izana, eta Lizarralde-ren bizi organoetan ura agertu izana oso susmagarria da. Nola liteke, gainera, hainbeste

polizia eta txakurren artean ia 24 ordu behar izatea bi gorpu aurkitzeko? Inguru hura eza-gututa sinistezina da. Nik uste dut harrapatu egin zituztela, eskuetatik joan zitzaizela, eta gero suizidioaren montajea prestatu zutela.

Inoiz ezer argituko den itxaropenik ba al duzu?

Ez. Irunberriko arroila setiatuta egon zen ia 24 orduz, eta beraiek bakarrik dakite zer gertatu zen han tarte horretan. Estatu arazoa zen, eta nekez argituko da han gertatutakoa.

German Rubenach iaz irten zen kartzelatik. Egon al zarete berarekin? Zer dio?

Bai kartzelatik irten eta egun gutxira gure etxera etorri zen. Bere gurasoekin eta anaierakin ere harreman oso ona izan dugu urte hauetan. Baina ez dugu hitz egiten Irunberrikoaz. German bizitza normaltasunez egiteko gai da, baina buruan jasotako tiroak ondorio batzuk utzi zizkion, eta ez da ezertaz gogoratzen.

Biktima kontsideraziorik ba al duzue?

Ez. Susana hil zenetik gaur arte, guk ez dugu inolako dei edo komunikaziorik jaso inongo erakunde ofizialeetatik. Jaurlaritza bera ere biktimen mailakatze bat egiten ari da, eta hori kezagarria iruditzen zait.

Biktima garenok badakigu zenbat sufritu dugun, baita beste aldekoak izanda ere, eta horregatik mingarria eta tristeza iruditzen zait ikustea biktima batzuk egiten duten sufrimenduaren erabilpen interesatua.

EGITARAUA



Euskal Memoria taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu Irunberri gertatutakoa oroitzeko .

> Ekainak 6

Irunberri mendia martxa 08:00 postetxe aurrean.

> Ekainak 15-28

Erakusketa: 'Irunberri sentituz'. Irunberriko gertakariak sentiarazitakoa adieraziz, Andoain, Iruñea eta Oñatiko hainbat artistek egindako lanak Kultur Etxean ikusgai.

> Ekainak 17

Hitzaldia (Egiari Zor: Ane Muguruza eta Karmelo Arregi) Estatuaren biktimak. Kultur etxean, 19:00

> Ekainak 24

Hitzaldia: 'Zer gertatu zen Irunberri?' Txemi Gorostiza eta German Rubenach. Kultur etxean, 19:00

> Ekainak 26

Bertso-poesia emanaldia Arranon, 21:00

'TXIKIAK HAZTEN'

Laktantzia eta hazkuntza taldea



TALDE IREKIA

Hileko lehen eta hirugarren ostegunetan (14:30-16:30) biltzen dira Gaztelekuko sotoan. Taldea irekia da interesa duten guztientzat. Ez da beharreak Txantxiki Familia Elkartearen kidea izatea, ez eta umeari bularra ematen egotea. Hurrengo bilerak ekainaren 4an eta 18an izango dira. Harremanetarako: edoskitzeatxantxiki@gmail.com

Haur jaio berriari bularra ematerkoan eta, oro har, haurren hazkuntzako lehen urteetan sortzen diren kezka, beldur eta zalantzak argitu eta arintzen laguntzeko foroa sortu zuen Txantxiki Familia Elkarteak iazko urrian. Zortzi hilabeteko bidea egin du dagoeneko taldeak, eta oso esperientzia aberasgarria gertatzen ari da, bertan biltzen diren amek aitortu digutenez.

Edoskitzea eta haurren hazkuntza gaietan aditua den Arantzazu Inzak koordinatu eta dinamizatzen du, baina bertan biltzen diren ama guztien esperientzia eta bizipenekin aberasten da taldea. Azken batean, etapa berdina bizitzen ari diren gurasoen esperientziak elkarbanatu, elkarrengandik ikasi eta elkarri babesa ematea da taldearen helburua.

Beste ama batzuen konpainia oso lagungarria da egoera emo-



Bularra ematerakoan eta haur jaio berrien hazkuntzako lehen urteetan sortzen diren kezka eta zalantzak jorratzen dirtuzte: umearen loa, kolikoak, nola hasi jaten ematen, ...

zionalak hobeto ulertzeko eta kudeatzeko. Beste guraso batzuek ere gure antzeko bizipenak dituztela ikusteak motxilan daramagun pisua arintzen laguntzen du, eta amatasunaren esperientzia lasaia-go bizitzeko aukera ematen du.

TALDE IREKIA

Taldea irekia da. Haur jaioberrien hazkuntzarekiko kezka duten gizon-emakume guztiei irekia dago; haurdun dauden emakumeak, ama izan berri direnak, seme-alabak hazita izanda ere beraien esperientziarekin lagundu ahal dutenak, aiton amaonak... Denak dira ongi etorriak. Ez da beharrezkoa Txantxiki elkartearen kidea izatea, ez eta umeari bularra ematen egotea.

Lotura edo konpromisio finkorik esaktzen ez duen taldea da. Hamabostean behin elkarrekin da (hileko lehen eta hirugarren ostegunetan) Gaztelekuko sotoan bi orduz (14:30-16:30) eta norberak nahi edo ahal duenean joateko eta irteteko aukera dauka.

Edozein zalantza argitu edo informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi edoskitzeatxantxiki@gmail.com helbidera.

ELKARRIZKETA | Hiart Arrue (Txantxiki) eta Arantzazu Inza (dinamizatzailea)

“Beste ama batzuekin elkartu eta elkarrengandik ikastea oso lagungarria eta aberasgarria da”

Zer dela eta erabaki zenuten taldea sortzea?

Txantxiki familia elkartean biltzen garen gurasook pentsatu genuen Edoskitze edo Laktantzia Talde bat sortzea, herrian zegoen hutsunea betzeko asmoz. Gai hauetan aditua den Arantzazu Inzarekin jarri ginen harremanetan eta iazko urrian jarri genuen martxan taldea.

Edoskitze talde bezala sortu zen, baina horretara bakarrik mugatu barik, haurren hazkuntza lehen urteetan sortzen diren bestelako kezkek eta zalantzak ere jorrazten ditugu: umeen loa, nola hasi jaten ematen, tripako minak, kolikoak...

Beharrezkoa da halako talde bat?

Bai, duda barik. Guraso berriek, eta bereziki amek, presio handia izaten dute. Kanpotik iristen zaizkion mezu asko (‘ez eman titia hain sari’, ‘ez egin lo umearkin’...) bere instinto naturalaren kontrakoak izaten dira, eta horrek kezka eta zalantza asko sortzen dizkio amari.

Beraz, egoera berean dauden beste ama batzuekin elkartzeara, bizipenak elkarbanatzea eta elkarrengandik ikastea oso lagungarria eta aberasgarria da. Egoera emozionalak hobeto ulertzen eta kudeatzen laguntzen du.

Zuek bularra ematearen garrantzia eta onurak azpimarratzen dituzue, ezta?

Jakina. Alde batetik, amaren esnea delako haurrarentzako elikagai egokiena, berezko espresuki sortua dena, momentu horretan behar duena eta, gainera, ama-umearen arteko lotura sendotzen duelako. Bularra hartzea ez da bakarrik gosea asetzea, kontaktua, berotasuna, segurtasuna, babesa, begiradak, maitasuna orokorrean; hau da, garai horretan ume txikiak behar duen guztia.

Hala ere ez dugu ahaztu behar arrazoi ezberdiñak medio, ama batzuk edoskitze artifiziala aukeratzen dutela, eta hauei ere errespetua eta babesa zor diegu. Garrantzitsua da informazio egokia ematea, eta bularra eman ez arren, beste guztia mimitzatu daitekeela azaltzea; kontaktua, berotasuna, babesa, begiradak... Bularreko



Ama berriek presio handia izaten dute. Kanpotik iristen zaizkion mezu asko instinto naturalaren kontrakoak dira, eta horrek kezka eta zalantza asko sortzen dizkio

esnea izan dadila galtzen duen bakarra.

Hamabosteroa elkartzen zarete Gaztelekuko sotoan. Zer egiten duzue bertan?

Geure bizipenak azaltzen ditugu (nahi duenak) eta norbaitek kezka edo arazo konkreturen bat baldin badauka, horri erantzuten saiatzen gara.

Beste batzuetan, gai konkretu baten inguruko informazioak irakurri eta komentatzen ditugu. Hitzaldiak ere antolatu izan ditugu: ume txikien digestio aparatuen inguruan, haur-eramaleei buruzkoa... Gauza ezberdinak egiten ditugu, baina beti giro lasai eta goxoa.

Udalak Gaztelekuko sotoan biltzeko aukera eman zigun, eta oso leku egokia da, haurrak ere gustora egoten direlako.

Nori gomendatzen diozue taldea?

Taldea irekia da, eta doakoa. Beraz, gai hauen inguruko kezkaren bat edo zerbait irakatsi eta laguntzeko prest dauden gizon-emakume guztiak daude gonbidatuta: guraso berriak, guraso izateko bidean daudenak, aiton-amonak...



IRITZIAK

“ Umea eduki nuenean sortu zen edoskitze taldea eta oso interesgarria iruditu zitzaidan. Nik uste dut



Maialen Arrazola

edoskitze naturala oso inportantea dela haurraren osasunerako eta baita arlo emozionalerako ere, eta horrek bultzatu ninduen taldean parte hartzera. Gainera, beste gai batzuk ere jorrazten ditugu laktantziak gain, eta oso aberasgarria da. Estu zaudenean aurrera egiten laguntzen dizu. Ni oso gustora etortzen naiz eta, gainera, umea ere gustura egoten da hemen”.

“Hasieran arazo batzuk izan nituen umeari bularra emate-rakoan, eta jakin nuenean



Aintzane Ezeolaza

talde hau sortu zela animatu egin nintzen etortzera. Egia esan, oso gustora nago. Niri asko lagundu dit. Barrena hustutzen duzu eta, gainera, gauza asko ikasten da. Lehenengo umearekin gauza asko berriak dira, eta beste batzuei entzunda asko ikasten duzu. Oso esperientzia ona izan da, eta nik animatuko nuke jendea bertan parte hartzera”.

“Ume txiki bat daukazunean beti sortzen dira zalantzak eta kezkek, eta zure egoera bere-



Irantzu Mugarza

tsuan dauden beste ama batzuekin hitz egiteak lagundu egiten du gauzak lasaiago hartzen. Talde hau sortu zenean nik hirugarren umea nahiko hazita neukan, baina parte hartzea erabaki nuen, beharbada nire esperientzia beste batzuekiko lagungarria izan daitekeelako, eta, gainera, beste batzuei entzunda beti ikasten duzulako zerbait. Oso positiboa da eta edozeini gomendatuko nioke. Nik lehenengo umea eduki nuenean eskertuko nuen halako talde bat egon izan balitz”.



Gomiztegiko harrobia

handitzeko proiektuaren ingurumen inpaktoaren azterketa abian jarri du Jaurlaritzak

300
metro luzetako bidezko
kortakogain aldera

Martxoaren 25ean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika sailaren idatzia jaso zuen Udalak. Bertan dioenez, hasiera ematen zaio Gomiztegiko harrobiaren ingurumen inpaktoaren ebaluazioa egin aurreko kontsulten izapideari. Beste modu batera esanda, Udalaren iritzia ezagutu nahi dute ingurumen inpaktuaren azterlanak izan beharko duen hedadura eta xehetasun mailari buruzkoa.

Gomiztegiko harrobiaren sustatzailea den Aridos Aloña S.L. enpresak 2006an aurkeztu zuen harrobia handitzeko egitasmoa. Proiektu haren arabera, enpresak ikutu gabe utziko zuen Arantzazuko errepidearen aldamenean 30-35 metroko errenkada bat harrobiaren inguruan inpaktua gutxitzeko. Trukean harro-


Harrobia handitzearen aurkako mozioa onartu du udalak, EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin

bia mendebalderuntz (Kortakogain aldera) 300 bat metrotan luzatzea proposatzen zen, 40.000m² inguruko azalera berria hartuz Oñatiko herri lurretan (gaur egun 90.000m²-ko azalera du harrobiak).

Orduetik ixilik egon da gaia, baina Eusko Jaurlaritzak 2013ko abenduan onartu zuen Ingurumen ebaluazioari buruzko legea eta orain hasiera eman dio harrobiaren handitzeak eragingo lukeen inpaktuaren azterlana egiteko prozesuari.

EH BILDU HANDITZEAREN AURKA

Funtziotan den udal gobernu taldeak txosten teknikoa igorri dio Jaurlaritzako Ingurumen sailari, esanez, harrobiaren handitzearen aurka daudela, batez ere, izango lukeen ingurumen



Goiko planoak erakusten du harrobiak amaieran izango lukeen egoera. Sekzio transbersaletan ikus daiteke nolako itxura izango duen zuloak harrobiko gune bakoitzean.



Gaur egungo harrobiak eta handitzeak hartuko lukeen eremua ikus daiteke goiko planoan. Berdez dago ustiatu gabe utzitako eremua, inpaktua gutxitzeko.



Goiko planoak erakusten duen moduan, harrobiaren luzapenak Natura 2000k babestutako habitatak hartuko lituzke.

inpaktua eta kokatzen den tokia kontuan hartuta.

Ildo horretan, apirileko osoko bilkuran Gomiztegiko harrobia handitzearen aurkako mozioa onartu zuen udalbatzak, EH Bilduren aldeko botoekin, eta EAJren abstentzioarekin.

Onartutako mozioak dio ez dela inolaz ere onargarria gaur egun Natura 2000 sarean sartuta dagoen Aizkorri-Aratz natur parkean ingurumenarekiko hain kaltegarria den harrobiaren ustiapen jarduera garatzea, eta are gutxiago harrobia handitzea.

EH Bilduk gogoratzen du, proposatzen den handitze eremuaren inguruak hainbat babes neurri dituela: Oñatiko udaleko arauetan nekazaritza eta abeltzantzarako babes bereziko gune izendatuta dago eta, gainera 92/43CEE Europar Direktiban oinarrituta, LIC (*Lugar de interés comunitario*) izendapena du, 'Natura 2000' sarearen baitan.

EH Bilduk dio ez duela onartzen egungo harrobiaren inolako anpliaziorik, eta eskatzen dio Jaurlaritzari lehenetsi ditzala naturaren babeserako irizpideak, ez baitira inolaz ere bateraga-

riak natura babesteko azken urteetan hartu diren neurriak eta Arantzasuko ingurunearen suntsiketa lekarkeen harrobiaren ustiapenari argi berdea ematea. Gainera, egungo harrobiaren Eraberritze Plana garatzearen garrantzia azpimarratzen du funtziotan den gobernu taldeak.

EAJ-REN JARRERA

EAJk esan zuen mozioaren edukiarekin ados dagoela, baina ez zaiola iruditzen mozio bidez landu beharreko gaia dela, Jaurlaritzarekin zuzenean hitz egin beharrekoa baizik. Horrela arrazoitu zuen abstentzioa EAJk.

Jeltzaleek esan zuten ez daudela ados Aridos Aloñak eskatzen duen guztia handitzearekin, larregikoa delako. EAJk adierazi zuen handitu beharrekoa proportzionatua izan beharko litzatekeela, eta gaur egungo legediak agintzen dituen ingurumen eta segurtasun aldetiko babes neurri guztiak zorrotz beteta.

Ekainaren 2an hasi dira Errekaldeko erdigunea eraberritzeko lanak

Errekaldeko urbanizazioa berritu eta irisgarri egiteko proiektuak aurrera jarraitzen du eta, hala, ekainaren 2an bosgarren faseko lanei ekin zaie. Oraingo honetan, beheko planoan ikus daitekeen moduan, Errekaldeko plaza nagusia eta auzoaren erdialdeko ibilbideak berrituko dituzte, auzoko ibilbide nagusien arteko lotura bermatuz modu seguru eta irisgarrian.



A2B Arkitekto Bulegoak idatzitako proiektuaren arabera, Errekaldeko 6tik 18ra eta 20tik 28ra doazen etxe-blokeen atzealdeko ibilbideak eta espazio irekiak eraberrituko dira, irisgarritasuna edo akzesibilitatea hobetuz.

AUZOKO PLAZA

Auzuneko plaza nagusia, aparkaleku bezala erabiltzen dena, bitan banatuko da, berau zeharkatuko duen ibilbide baten bidez (ikusi beheko planoan) eta aparkatzeko bi gune egokituko dira bertan, bata handiagoa, 12 autorentzat,



> Errekaldeko plaza da berrituko den guneetako bat. Ondoko planoak erakusten duen moduan, oinezkoen ibilbide batek zeharkatuko du, eta aparkatzeko bi gune bereiztuko dira.



ERREKALDEKO PLANO OROKORRA

5. FASEKO LANEK HARTUKO DITUZTEN GUNEA

eta bestea 4 kotxerentzat. Plazako zoladura guztia berrituko dute.

Gainerakoan, oinezkoen ibilbideak egokituko dira, espaloiak zabalduz eta zoladura berrituz, ikusmen arazoa duten pertsonen orientazioa errazteko pabimentu franja edo lerro desberdin batekin. Eskailerak ere berrituko dituzte, eskailera-mailak handituz, eta baranda edo eskudelak jarriz.

Horiez gain, jarleku berriak jarriko dituzte eta argiteria ere berrituko dute, LED teknologia-dun argiak jarriz.

Ugarte eraikuntza enpresak egingo ditu lanak 164.000 euroko aurrekontuarekin, eta ustekaberik ez bada, bi hilabeteko epean amaituko dituzte lanak.



> Oinezkoentzako ibilbideak eta eskailera guñeak berrituko dituzte, espaloiak zabalduta eta zoladura berrituz, besteak beste



San Lorentzo berritzeko 7. faseko lanak lizitaziora atera ditu Udalak




< Ondoko planoek erakusten duten moduan, San Lorentzoko 1 eta 17 zenbakidun etxe-blokeen inguruan egingo dira lanak

San Lorentzoko urbanizazioa berritu eta irisgarri egiteko lanek aurrera jarraitzen dute. Oraingo honetan 1 eta 17 zenbakien arteko etxe-blokeen inguruan zentratuko dira lanak, ondoko planoak erakusten duen moduan.

Espaloiak zabalduta, zoladura berrituta, zebra-bideak espaloien mailara altxatu, eta eskailerak berritzea dira, besteak beste, egingo diren lanak. Aparkatzeko plaza berri batzuk ere egokituko dituzte. Gainera, lan hauek aprobeztatuz, saneamendu sarean ere lan batzuk egingo dira, euri uren eta ur zikinaren hoditeriak bereizteko.

Lanak lizitaziora atera ditu Udalak 198.913 euroko (BEZ kanpo) aurrekontuarekin. Lanak egiteko epea bost hilabetekoa da, eta 2015eko abenduaren 31 baino lehen bukatuta egon beharko dira.



Urtea amaitu aurretik bukatuta egon beharko dira lanak

GURRUST
TABERNA • JATETXEA
 Bidebarrieta 6
 Tel: 943 71 62 96
 20560 OÑATI

FAGOR
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

'Aurrekomendiko kontuak'

Aurrekomenditarren historia eta bizimodua jaso dute liburu batean, Lizargarate elkartearen 50. urteurrena borobiltzeko

Aurrekomenditarren topalekua izan da beti Lizargarate elkarte, eta iaz 50 urte bete zituela ospatzeko, auzotarren historia, bizimodua eta ohiturak biltzen dituen liburua idatzi dute, 'Artixa' elkartearekin lankidetzan.

Aurrekomendi sekula ez da izan auzo bat ofizialki, baina inguru horretan biltzen diren baserrien arteko auzotasuna handia izan da eta, praktikan, auzo bezala funtzionatu dute.

Oñatiko iparraldean, Askazubitik (Zubillaga) Azalgateraino (Larraña) dagoen eremuari deitzen zaio Aurrekomendi, eta hiru auzotako baserriak hartzen ditu bere baitan: Larrañaiko Olabarri, Antzuelas Beitti, Antzuelas Etxeberri, Antzuelas Goitti, Eltzikorta, Koroso, Sarramendi eta Lizargarate; Garibaiko Duruan, Koixkar Azpikua, Koixkar Garaikua eta Ixiu; eta Zubillagako Alkorta eta Askazubi.

Gaur egun 8 pertsona bakarrik bizi dira Aurrekomendiko baserrietan (bertan erroldatuta daudenak), baina historian zehar bizitza handiko auzoa izan da, eta, adibidez, 1856ko erroldaren arabera, 155 biztanle zituen. Baserrietik ateratzen zuten bizimodua, eta astean behin baino ez ziren herrira jeisten.

ESKOLA ETA ELIZA

Eskola-etxea ere bazeukaten. Aurretik Sarramendi baserriko gela batean ematen zituzten eskolak, baina txiki geratu zitzaizen, nonbait, eta 1923an eskola-etxe berria eraiki zuten Sarramendi eta Koroso artean. Aurrekomendita-

> Korpus egunean jarriko dute salgai Foruen enparantzan 10 eurotan



ERAKUSKETA / ekainak 1-14 kultur etxean

Baserriko tresna eta altzariak



Aria <

> Plantxia



> Sehaska



Gorua <



Askazubi baserriko Jose Lizaur Larrañaga zenak bilduma zoragarria osatu zuen etxean eta senideen artean batutako baserriko tresna eta altzariekin: su-tresnak, belarra moztekoak, ikatza egitekoak, uztarriak, argi-ontziak, azeri eta sator zepoak, igitaixak, segarrirak... Ikusgarria benetan. Garai bateko gure baserrietako bizimoduaren erakusgarri. Orain, Jose Lizaurrek batu eta gordetako tresna horiek kultur etxean daude ikusgai hilaren 14ra arte (egunero 18:00-20:00) Artixa kultur elkartearen eskutik.

rrak ez ezik, mugakide diren Antzuola, Bergara eta Legazpiko zenbait baserritako neska-mutikoak ere joaten omen ziren bertara.

Bi urte geroago, 1925ean, auzoko eliza ere eraiki zuten Koixkarren, auzotarren ekimenez hau ere, eskola bezalaxe. Gaur egun ere igandero ospatzen da meza bertan, eta Jesusen Bihotzaren egunaren hurrengo igandean ospatzen dute urteko jaiak. Aurtengoa ekainaren 14an izango da.

ERRONDALARI FAMA

Errondalari fama ere izan dute aurrekomenditarrek, Gabonetan eta Inauterietan egiten zituzten errondak zirela-eta.

Lizargarateko erromeriak, eta handik hurbil ospatzen ziren Azaldittako erromeriak ere famatuak ziren. Azken urteotan berriz ere indarra hartzen ari dira Lizargarateko erromeriak, Lizargarateko Trikitixa elkartearen eskutik.

Bizitza eta nortasun handiko auzoa izan da Aurrekomendi, eta esan bezala, bertako bizimodua eta ohiturak bildu dituzte 'Aurrekomendiko kontuak' izeneko liburuan, argazki ugari eta ederez jantzia. Lan bikaina, benetan. Korpus egunean jarriko dute salgai foruen enparantzan 10 eurotan.

Gure herriko historia eta ondarea jaso eta ezagutzera emateko helburuarekin sortu den 'Artixa' kultur elkarteak osatu du liburua, Lizargarate Elkarte eta Aurrekomenditarekin lankidetzan.

MOTZEAN

Usakoko bainu denboraldi ofiziala ekainaren 13an hasiko da



Ekainaren 13an hasi eta irailaren 13ra arte luzatuko da bainu denboraldi ofiziala Usakon, eta ohi bezala, aurre ere sorosle zerbitzua egongo da egunero (15:00-20:00). Bainu denboraldia hasi aurretik inguruak txukundu eta ur putzua garbituko du Udalak, 'Buceo Euskadi' enpresaren bidez, ur azpian egon daitezkeen elementu arriskutsuak ateratzeko.

Gazteen sormena sustatzeko dirulaguntza deialdia

Herriko gazteen urteko jarduera eta sormen lana (diskoak, komikiak, ikus-entzunezkoak...) sustatzeko dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Irabazi asmorik gabeko 12-30 urte arteko gazte talde edo norbanakoei zuzenduta dago deialdia. Ekainaren 25era arteko epea dago eskaerak aurkezteko.

12.000€-ko beka ingurumen arloko ikerketak egiteko

Ingurumen arloko ikerketak egiteko beka emango du aurten lehen aldiz Udalak. Natur parkearen mugetatik kanpo geratzen den Oñatiko inguruneari buruzkoa izan behar da ikerketa. Ekainaren 8ra arteko epea dago proposamenak aurkezteko. Lana 2016ko urte amaierarako bukatu beharko da.

Ehun urte bete dituzte Maria Aranburuk eta Angela Larrañagak

Maria Aranburu Agirrebalzategik maiatzaren 21ean bete zuen mendeurrena, eta Angela Larrañaga Aias-tuik maiatzaren 31n. Senideez inguratuta eta giro ederrean ospatu zuten urtebetetzea. Zorionak!



1935EKOEN KINTTADIA. 1935ean jaiotako gizon-emakumeek kinttadia egin zuten maiatzaren 23an aurten 80 urte betetzen dituztela ospatzeko. Soraluze ostatuan bazkaldu zuten lagunarteko giro ederrean. Zorionak guztioi!

HARALD LINDER
ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
 PERSONAK, LEBANAK, LAN FORTANTYAK, ARRIAK, PINTURAK LANAK...
 GUZTIAN BILATZEA ERREKONSTRUKZIOA
 BERRIKATZEA, KONPONKETA eta ARRIKATZEA
 BARRUA 12 E-4. k.a. - 48933 ERRIKUI - OPIJANAK
695 78 91 04 - 943 04 47 77

ZURICH
M^a del Mar Urrutia Negueruela
 Motxori Kalea 5 behea
 Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

Ekainaren 21ean Donostian dugu hitzordua oñatiarrok



Erabakitzeke eskubidearen aldeko ekitaldia egingo da Anoetan Gure Esku Dagok antolatuta

GURE ESKU DAGO ekimenak antolatuta erabakitzeke eskubidearen aldeko ekitaldi erraldoia egingo da ekainaren 21ean. Iaz Durango eta Iruñea lotu zituen giza-katea osatu ostean, aurten hautesontzi erraldoiak eraikiko dituzte, herritarren borondateak biltzen dituzten oihal zatiak elkarrekin josiz.

Euskal Herriko bost hiriburutan batera burutuko da ekimena: **Bilbon** (San Mames), **Donostian** (Anoeta), **Gasteizen** (Buesa Arena), **Iruñean** (zezen plaza) eta **Baionan** (zehazteke).

OÑATIARROK DONOSTIARA

Oñatiarroi Donostiako ekitaldira joateko dagokigu. Helburua, jakina, ahalik eta jende gehien bertaratzea da. Dagoeneko 1.000tik gora oñatiarrek bete dute oihal zatia. Kopuru polita da, baina oraindik badago jende gehiago batzeko aukera, kontuan hartuz iazko giza katean 2.000 inguru oñatiarrek parte hartu zutela. Beraz animo! Oñatiko GEDtailerrak Kale Barrian dauka lokala, eta beraz, ekainaren 21eko aldarrikapen festan parte hartu nahi duzuenok bertatik pasa zaitezke.

SARRERAK SALGAI

Oñatiko GEDk ekainaren 6tik aurrera jarriko ditu salgai Anoetako ekitaldirako sarrerak (10€ helduak, 5€ haurrak), bertara joateko autobus txartelak (nahi dutenentzako) eta baita egun horretarako atera duten kamiseta ere. Izan ere, kamiseta jantzita eramateko deia egin dute antolatzaileek, batasun irudia emateko.



> Herriz herri eta auzoz auzo jositako oihal zatiekin hautesontzi erraldoiak eraikiko dituzte Euskal Herriko bost hiriburutan



GIROTZE EKITALDIA

Ekainaren 21eko ekitaldia prestatzen eta girotzen joateko, Oñatin orain arte osatu diren oihal zatiak elkarrekin josi eta plazako arkupetan jarriko dituzte ikusgai ekainaren 6an, eguerdiko 13:00etan.

EGITARAUA

12:00

Giza kateak

Hiriburu bakoitzean giza-kate bat egingo da. Donostiakoa Urumea ibaiaren inguruan egingo da.

18:00

Ekitaldi nagusiak

Eguneko puntu gorena izango da. Herriz herri eta auzoz auzo prestatutako oihal zatiak josita hautesontzi erraldoiak eraikiko dira, herritarren borondatearen erakusgarri. Pantaila erraldoien bidez, bost hiriburuetan gertatzen dena jarraitzeko aukera egingo da.

FESTA GUNEA

Egun osoko aldarrikapen festa izango da. Donostian bi festagune egongo dira. Batetik, Familia Gunea Illunben, 11:00etatik aurrera: tailerrak, puzgarriak, Irrien Lagunak eta erromeria. 2500 lagunentzako bazkaria eskainiko da bertan. Bestalde, Anoeta mini-estadio inguruan helduentzako festa gunea egongo da: txosnak, sagardo dastaketa, musika... 3.000 lagunentzako bazkariak eskainiko dira bertan.

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMITADA S.L.

BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 39 | liv.obarsali@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba

943 781 217

Itxia barria 1 - 20560 Oñati
www.sanmiguel.coop

ETXEBIZITZA BERRIAK OÑATI ERDIAN

*Maiatzaren 1. Plaza,
2. zenbakian*

*3. logeletako
etxebizitza zabalak*

Informazioa eta Salmenta:
Larrain S.L.
Tel.: 943 21 33 88
www.moyua.com

grupo **MOYUA** **Larrain**

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Izen-ematea
maiatzaren 25etik ekainaren 5ra

» Oñati gestio heziketa

MGEP
Mondragoneko Goi Mailako Heziketa

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa eta Finantzak • Zuzendaritza Idazkaritza • Salmenta Kudeaketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak • Automatizazioa eta Robotika Industriala • Sareko Informatika Sistemen Administrazioa • Fabrikazio Mekanikoko Diseinua • Fabrikazio Mekanikoko Produzioen Programazioa • Mekatronika Industriala
<p>www.mondragon.edu/ogh info.erpresagintza@mondragon.edu 943 71 80 09</p>	<p>www.mondragon.edu/gmhz gmhz.mgpe@mondragon.edu 943 73 97 65</p>

lanerako gertut
20152016



HERRIA ELTZIARA

EKAINAK 20, LARUNBATA (17:30-20:30)

Oñatiarrok ELTZIA egitasmoa ezagutzeko aukera paregabea izango dugu ekainaren 20an. Gaur egun bertan lanean diharduten herriko 25 elkarte eta herri mugimenduren artean antolatatu dute HERRIA ELTZIARA eguna, bertan egiten den lana eta etorkizuneko asmoak ezagutzera emateko asmoz.

Olarako jaiekin bat eginez, arratsalde osoko egitaraua prestatu dute. Musika, bertsoak, antzerkia, artisau lanak, laburmetrai proiektzioak, elkartsun azoka, bizikleta eta mugikortasun stand-a, ortuko produktuak, haurrentzako tailerrak, lehen sorospeneko erakustaldiak, aeromodelismoko gailuak, yoga, natur aniztasuna, memoria historikoa.... Egitaraua bete-betea izango da, Oñatiko herri mugimendu eta elkarten lana gertutik ezagutzeko aukera bikaina, lana, jaia eta herri sormena uztartzuz.

ETEoko eraikin zaharra ELTZIA egitasmoa egokitzeko landu den proiektu arkitektonikoa ezagutzeko aukera egongo da, eta baita laster martxan jarriko diren musika entsegu lokalen proiektua ere. Zatoz ikustera, eta eragin zuk ere eltzia!

ELTZIA proiektu arkitektonikoa ezagutzeko aukera egongo da; baita laster martxan jarriko den musika entsegu lokalen proiektua ere

JUBILATUEN ASTEA

ekainaren 15etik 21era

Ekainaren 21ean izango da aurten herriko jubilatuen eguna. Urtero bezala, herri bazkaria egingo dute kiroldegian. Txartelak ekainaren 9, 10 eta 11n egongo dira salgai 12 eurotan. Aurreko egunetarako ere egitaraua zabala prestatu dute: Aloña abesbatzaren kontzertua (ekainak 15); J. R. Galartza medikua-ren hitzaldia (ek. 16); San Marti-nera ibilaldia (ek.17); Bingo berezia (ek.18); txokolatada eta dantzaldia (ek. 19).

ULMA Fundazioaren

elkartasun kanpaina

Ume errefuxiatuen malnutrizioa ekiditeko helburua duen kanpaina jarri du abian Ulma Taldeak ACNURekin lankidetzan. Hala, SMS bat bidalita 28014 zenbakira ULMA hitzarekin (mezuaren kostua 1,2€) haur batek egunean behar duen elikagaia finantziatuko dugu 'Plumpy Nut' izeneko elikagai terapeutikoaren bidez.

TXIRRINKAREKIN BILBORA ETA LEITZARANERA

Ekainaren 14an egun osoko irteera antolatu du Txirrinkak Bilbo ingurura. Bertan itzuli bat egin ondoren Portugaletaraino joango dira, eta Bizkaia zubia zeharkatu ostean, Getxo, Punta Galea eta Algorta aldean ibiliko dira. Danera 45 km. Bizikletak furgonetan eramango dituzte Bilbora. Goizeko 8,30etan irtengo dira Ibarako aparkalekutik. Parte hartu nahi duenak txirrinka@gmail.com helbidean eman behar du izena. Plaza mugatuak. Prezioa 8€ (Txirrinkako bazkide ez direnek 12€). Bazkaria norberaren kontura izango da.

LEIZARANERA NATUR ESKOLAREKIN

Uztailaren 5ean Leizaran bailarara izango da irteera, Natur Eskolako gidaritzapean, eta bertako balio natural eta etnografikoak ezagutuko ditugu. Izena emateko egunak eta bestelako xehetasunak aurrerago jakinaraziko dituzte



ARRI
Industria Hornidurak
Burdindegia
Orain Oñatiarren zerbiltzura!
Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

NI
moda
MODA BEREZIA
Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

SAN MARTIN GUNEAN GARAJEAK eta **SALGAI**
bukatutako eraikinean, azken **ETXEBIZITZAK**

2 eta 3 logela
177.259€ -tik



MOJASORO S.L. Informazioa: 689 420 761 Eraikitzailea: Egaralur www.egaralur.net



ikastolan
denok gara **2015/2016 ikasturtea**

**Guraso eta tutoreen
arteko bilerak**

0-1 urte - Ekainaren 30ean - 18:00etan
2 urte - Uztailaren 15ean - 18:00etan



OÑATIARRAK MUNDUAN



eta MUNDUA OÑATIN



Izena: Iñigo Ruiz
Adina: 31 urte
Kanadan bizi da



Izena: Swejan Adhikari
Adina: 28 urte
Nepal

Kontzeju | 18 | peñik

Kanadako Quebec probintziako Montreal hirian bizi da Iñigo 2011ko azarotik. Euskal Herrian ganorazko lanik ez aurkitzeaz aspertuta egin zuen alde. Han ere ez omen da erraza norbere alorrean lana aurkitzea, baina zorzea izan du, eta bere formazioarekin (arkitektura) lotutako lanetan dihardu.

Ipar Amerikako probintzia frankofono bakarra da Quebec, eta bertan bizi eta lana aurkitu ahal izateko beharrezkoa da frantsesa eta ingelesa menperatzea. Eguraldiak ere asko baldintzatzen du hango bizimodua; ia sei hilabetez negua izaten da, eta gainerakoan uda, -30 eta +30 gradu arteko aldearekin.

Politika sozialetan eta gizon-emakumeen arteko parekidesuntasunean oso herri aurreratua da Kanada. Kulturalki ere oso bizia omen da. Kanadiarrei buruz ezer azpimarratzekotan, errespetua nabarmentzen du Iñigok; pertsona eta gauza guztiekiko errespetua eta interesa.

Naturaren indarra da Kanadaren beste bereizgarrietako bat, ibai eta parke eder askorekin. Oporretan donanarentzat Quebec-eko kostaldea gomendatzen du; iparraldeko fiordoetatik hasi eta Montrealeraino. Barnealdeko parkeak ere oso politak dira (Ontario, Niagara...). Hori bai, poltsikoa beteta eraman.

Gustura dago Iñigo Kanadan, baina gero eta gehiago sumatzen du herrimina, eta Euskal Herrian lan eskaintzaren bat izaenez gero, gustura itzuliko litzateke.

Nepaldarra da Swejan, Katmandutik 150 km.-ra dagoen Chitwan hirikoa. Hain justu bertan izan zen lurrikararen azken erreplikaren epizentroa. Bere senideak ondo daude, zorionez, baina triste dago, bere herrikide askoren egoera ikusita: jendea kalean, jatekorik gabe, eraikin historiko asko birrinduta... Bere bihotza han dagoela dio. Horregatik, ekainaren 12an, Nepaldarrei laguntzeko diru-bilketa ekitaldia egingo dute foruen enparantzan 'Auzoko' ekimeneko lagunekin batera, eta laguntzea eskatzen die oñatiarrei.

Orain dela ia bi urte iritsi zen Oñatira Swejan. Aurretik Bilbo, Eibar eta Soroluzen ere egon zen urtebetez. Gustura dago Oñatin. "Natura maite duen edonorentzat leku ederra da. Gainera, oso jende ona aurkitu dut bertan, laguntzeko prest dagoena".

Lana aurkitu ezinik dabil, tamalez. Sukaldari bezala espientzia du, eta administrari ikasketak ere bai. Baina beste edozein lan ere hartuko luke. Oraingoan, diputazioaren AGI laguntzari esker bizi da. Lana aurkituz gero Oñatin bizitzeko geratzea gustatuko litzaioke.

Eskaintza bat ere luzatu digu Swejanek. Ikastetxeren batek edo beste norbaitek Nepali buruz gehiago jakin nahiko balu, prest dauka proiektio bat, gazteleraz edo ingelesez. Eta amaitzeko mezu bat ere utzi digu: pakea eta maitasuna.

**GARBIKETA
 ADMINISTRAZIOA
 ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak

GAKO
Sarritasunaren Usaina

653 70 45 47
 Oñati

**PINTURAS
 URBIA
 MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

ANALISIA

Guardia Zibila Oñatin

Fan Hemendik eguna deitu dute ekainaren 13rako, Guardia Zibila Oñatitik joan dadin eskatzeko. Gure herrikoa, Benemertak Gipuzkoan dituen zortzi kuarteletako bat da, eta 1970eko hamarkadaren hasieran eraiki zuten, Udalak utzitako orubean.

Baina noiztik dago Guardia Zibila Oñatin?



1876tik gaur arte eten barik egon da Guardia Zibila Oñatin

Fan Hemendik eguna: Ekainak 13

Zehatz-mehatz ez dakigu noiz iritsi ziren aurreneko guardia zibilak gure herrira. Udaletzeko agerietan aurkitu dugun erreferentzia zaharrena 1872koa da; bertan, karlistek lapurtutako 18 zakutoren ordaina eskatzen dio Udalari Guardia Zibilaren probintziako buruak.

Hurrengo aipamena 1876koa da. Bigarren Gerra Karlista amaitzean dela, Guardia Zibilak gerra aurretik zituen postuetara itzultzeko asmoa agertzen dio Udalari, eta uztailearen amaierarako kokatzen dira Oñatin. Udalak Madinabeitia jaunaren jabetzako etxe bat uzten die Santa Marinan 800 errealeko urteko errentaren truke, baina Guardia Zibilak uko egiten dio errenta ordaintzeari, gastu hori herriak bere gain hartu behar duela argudiatuz.

1894an etxe berria hartu zuen Guardia Zibilak Santa Marinako aldapako (gaur egungo Lope Agirre kalea) 2 zenbakian, eta bertan egon zen 1930era arte.

Handik alde egin behar izan zutenean, jabeak etxea saldu nahi zuelako, Udalak deialdia



Udal Artxiboa

Kale Zaharreko 51n egon zen kuartela 40 bat urtez, 1930etik 1972ra. Garai batean ohikoa zen guardia zibilak Gorpuztikiko prozesioan ikustea



Andrés Arlanzón funtsa

egin zuen herritarren artean Guardia Zibilarentzat etxe bat aurkitzeko helburuarekin. Eta hala, Kale Zaharreko 51ean egokitu zuten kuartel berra, Naparrenakoen jabetzako

etxean, 2.300 pezetako urteko errentaren truke, eta bertan egon ziren 40 urtez.

1971eko ekainean Reyes Korkostegi alkate zela, Udalak kuartel berria eraikitzeko orubea laga zion Guardia Zibilari estazio ondoan. Proiektuaren memorian irakur daitekeenez, Benemertako zuzendaritzak oso egokitzat jo zuen kokapena, eta ahalegin berezia egin zuen, beste kuartel-etxe batzuetan ez bezala, eraikinarren diseinua eta materialak zaintzeko, Oñatiko herriaren ezaugarri historiko-artistikoak errespetatuz. 9,3 milioi pezeta kosta zen kuartel berria.

Giza katea kuartela inguratuz



Promozio bideoa: <https://youtu.be/l-6vYG6LWw>

Ekainaren 13an izango da aurtengo Fan Hemendik eguna, eta berritasun moduan giza-katea egin nahi dute kuartelaren inguruan, Guardia Zibila Oñatitik eta Euskal Herritik joan dadin eskatzeko. Arratsaldean izango da hori, manifestazioa kuartel ingurura iristen denean. Gainerakoan, ohi bezala, poteoa, bazkari herrikoa eta kontzertuak izango dira Fan Hemendik egunean. Bazkarirako txartelak Boga, Ona eta Arranon daude salgai 10€tan (langabeak 6€). Herriko zenbait musikariren artean Fan Hemendik egunerako abestia ere sortu dute: <https://youtu.be/e50knFojM-l>



EZKONTZETAN

Etxe-Aundi
Zuzen - Justu eta

2015-2016 urteetan

Informazio gehiago,

Tel. 943 78 19 56

www.etxeaundi.com





ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala
ZUZENDARIA: Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA: Aratz Losada
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza
eta Udal Euskaltegia
INPRIMATEGIA: Gertu
Tirada: 5.500 ale
Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus
Publizitatea: publi@onati.eus
Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkia: Ekain Muñoz (Ilunpetan)

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Txistua

Pernando Mendiguren

Lander adiskidea, Iazko urrian nik idatzi nuen TXISTUA iritzi artikuluari buruz zuk idatzitako gutunaren inguruan xehetasun batzuk eman gura ditut:

- Nire lagun handi Juan Ramon Barrenaren deia jaso nuen, egun batean elkartu eta nire idatziaren inguruko hausnarketa egiteko.

- Ia urte erdi igarota, eskatutako bile-ra hori egiterik izan ez dugunez, aldizkariaren bitartez erantzutea erabaki dut, zuri eta, bidez batez, herri osoari.

- Beste ezer baino lehen esan nahi dizut, Lander laguna, nik idatzitako iritzi artikulua helburua ez zela, inola ere, inor mintzea, ezta zuen guztion lan ona nabarmen uztea ere.

- Nire asmo bakarra zen TXISTUA-
rekiko maitasuna piztea eta, batez ere, IRIARENArekikoa, nire uste apalean PROTAGONISMOA galdu baitu.

- Niretzat, eta herri osoarentzat, oro har, TXISTUA oso geurea da. Zer esan-go dizut zuri Lander, instrumentu eder honekin maiteminduta zauden horri.

- Azkenik, barkamena eskatu nahi dizut, minduta sentitu baldin bazara, bai zuri eta bai Oñatiko txistulari talde osoari ere.

Egunen batean gustura elkartuko nintzateke zurekin barkamena eskatzeko TXISTUArekiko eta OÑATIrekiko nire maitasuna kontuan hartuz.

Ordutegi berria Hermansoloñaren tailer solidarioan

Jose Antonio Urteaga

15 urtez Argentinarako materila batzen ibili ondoren, aduanarekin daukagun arazoan ondorioz batez ere, gure lanari beste norabide bat ematea erabaki dugu. Hala, hemendik aurrera batuko dugun materiala CARITAS (Oñati eta Arrasate) elkartera bideratuko dugu. Hori dela eta, gure tailer edo lokaleko ordutegia ere moldatu egin dugu. Aurretantzean arratsalde egongo gara Bidebarrietako lokalean; astelehenetik ostegunera, 18:30-19:30. Lokalaren kanpoaldean daukagun kontainer edo edukiontzi zuria zabalik egongo da modu iraunkorrean.

5 URTEURRENA dela eta, ekainean zehar **IO** ileapaindegitik pasatzen diren bezero guztien artean, 189€ baloratutako plantxa* profesional bat zozketatuko da.

Mila esker bezero guztioi!

io
ILEAPAINDEGIA

apaolaza, 4
Tel.: 943 03 46 76
OÑATI

*Iturritzeko optika

Argazki: DCMA

Gure lokaleko ordutegitik kanpora norbaitek entrega bereziren bat egin nahiko balu, 685751727 telefonoan aurkitu ahal izango gaitu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu oñatiarrei urte hauetan guztietan erakutsi duten elkartasun eta eskuzabaltasunagatik.

Musika Eskolaren izenean, eskerrik asko!

Aitor Madina

Maiatzaren 23an ASPANOGIren alde Jose de Azpiazu Musika Eskolak antolatutako jaialdia dela eta, eskertu egin nahi dugu OÑATIko herriak jaialdiaren helburuari emandako babesa.

Jaialdia aurrera eramateko eskaini duguten laguntza ere eskertu nahi diegu herriko ikastetxei: Elkar Hezi, Urgain eta Txantxiku Ikastola.

Modu berean Bertso Eskolako ikasleei, Oñatz dantza taldeari eta Aita Madina Txistulari taldekoei ere eskerrak eman nahi dizkiegu Musika Eskolaren izenean, eskainitako laguntzagatik. Abeslariei

(Alazne eta Iñaki) ere mila esker adierazitako ausardiagatik!!!

Amaitzeko eskerrak eman nahi dizkiegu bolondres gisa laguntzen aritu zen Musika Eskolako guraso taldeari eta NATRA ZAHOR enpresari, haurrei banatzeko eman zizkigun txokolatinentzat.

Mila esker guztioi eta hurrengorarte.

PAUSOKA , PAUSOKA bagoaz aurrera!!!! POLIKI POLIKI betez gure ametsak!!!

Argibideak

Kontzejupetik

250 zenbakira iritsi ginela-eta, Kontzejupetik aldizkarian egindako berrikuntza eta aldaketen berri eman genuen maiatzeko zenbakian. Bertan genion moduan, 1992ko irailean ekin genion aldizkari hau hileroko maiztasunez argitaratzeari gaur egun egun ezagutzen dugun formato eta ezaugarriekin.

Baina bidezkoa da esatea, Kontzejupetik aldizkariak aurreragoko beste etapa bat ere izan zuela. Zehazki, 1988ko Urtrilean jaio zen aldizkaria, Eli Galdos

alkate zela, euskararen normalizazioan laguntzeko helburuarekin. Hiruhilabete-ko maiztasuna zuen eta, batez ere, udaletxeko gaietan zentratzen zen. Imanol Galdos eta Marian Lizarralde garai hartako udaleko Euskara teknikariak ziren arduradunak. 1991ko abendura bitartean hamahiru zenbaki argitaratu ziren eta, dudarik gabe, gaur egun ezagutzen dugun aldizkariaren oinarriak jarri zituzten. Beraz, eskerrik beroenak beraiei ere.

Bestalde, aldizkarian egin ditugun aldaketen harira, herritar batek esan digu ez zaiola ondo iruditu aldizkariaren izena aldatu izana. Horren harira esan behar da ez dugula izena aldatu. Izenak 'Kontzejupetik' izaten jarraitzen du, baina azaleko mantxetan arku baten azpian ageri da orain hitzaren bigarren zatia (petik), hain zuzen ere izenaren esanahi eta jatorriarekin lotu nahi izan dugulako. Izan ere, 'Kontzejupetik' izena jarri zioten aldizkariari 1988an, udaletxeko edo, beste modu batera esanda, kontzejuko beheko lokaletik irteten zelako, eta horixe irudikatatu nahi du azalean ageri den arkuak.

📷 HILEKO IRUDIA

Argazkia: Jon Ander Arzuaga




Oñatiko plazaren bestelako ikusputua.

IRUNBERRI GOGOAN

Ekainaren 25ean 25 urte beteko dira Susana Arregi guardia zibilak hil zuela. 26 urte zituen berak. Pelikuletako bezalako gertaera, baina errealitatean. Gaur egun egunero gertatzen diren kontu horietako bat gehiago, oñatiar bat protagonistetako bat zela.

Hiru urte paseak ziren jada ihes egin zuela. Ikastolan zuen lana bertan behera utzi eta iparraldera joan zen. Haurrak kudeatzetik gatazka politiko baten lehen lerrora pasa zen. Lekunberrin guardia zibilaren kontrako ekintza bat egitea asmo

Aimar
Uribesalgo



zuten, eta eguerdian kontrol batean gelditu ondoren, tiroketa hasi zen. Talka horretan Hervás sarjentua hil zuten, eta German Rubenach etakidea bi tiroz (hankan eta buruan) zaurituta gelditu zen. Bertsio ofizialaren arabera, hurrengo goizean Susana Arregi eta Jon Lizarralde hilda aurkitu zituzten, German zegoen tokitik 15 m-tara. Beraien buruaz beste egin omen zuten. "Detaille" asko daude baina, azken tesi hori ezeztatzen dutenak eta torturatuak eta erailak izan zirela frogatzen dutenak. 500 agente inguru, txakur

eta helikopteroez lagunduta, ezin esan kontu makala izan zenik. Ihes biderik gabeko leku itxi baten 21:00etan bikotea bilatzeari utzi zioten argi falta zegoela arrazoituta; udako solstizioa pasa berri zegoen udako egun hartan.

Oihartzun handia izan zuen gertaerak orduko garaian. Hilobiratzearen ostean, Oñatin "beltzek" manifestatzaileen kontra kargatu zuten eta hainbat herritar zauritu zituzten. Urte batzuk geroago, beste herritar batzuk Susana Arregiren urteroko omenaldira joateagatik Auzitegi Nazionalera joan behar izan zuten. Gaiari buruzko dokumentala egin da, testuak idatzi dira eta erakusketa bat egingo da, herriarrok jakin dezagun fikzioa dirudien errealitate hura..



EKONOMIA, HEZKUNTZA, SEKTAK, HERETIKOAK ETA METAFORAK INFERNURA

*Egun hauetan salbazioaren eta paradisuaren hotsak iritsi zaizkit: eraikuntza (ez nazionala), kontsumoa, hazkundera. Batzuk oraindik "isurketa"ren teoriak aldeztzen dituzte; berarek honakoa hartzen dute egiaztat: **merkatu-askatasunak** lagundutako ekonomia **hazkunde** orok, berez, munduan **gizarte-ekitate** eta **-inklusio** handiago eragitea lortzen duela. Gertakari sekula baieztatu egin ez duten iritzi honek zera adierazten du: halako konfiantza trakets eta inozoa **botere ekonomikoa** dutenen ontasunean eta indarrean dagoen sistema ekonomikoaren mekanismo sakralizatuetan. (54).*

Finantzei eta ekonomiari eragiten dien **mundu-krisiak** bere desorekak eta, batez ere, bere **norabide antropologiko gabe-**

Juankar
Olaeta



zi larria azaleratu egiten ditu, zeinak giza-kia bere beharretako batera murrizten duen: **kontsumoa**.(55)

Merkatuen autonomia absolutua eta **finantza-espekulazioa** aldeztzen dituzten ideologiak dira desoreka honen jatorria. Etekinak areagotzearen dena fagozitatzeraz jotzen duen sistema honetan, **ahula den edozer/nor**, ingurugiroa kasu, **defentsa gabe** gelditzen da arau absolutu bihurtu diren **jainkoturiko merkatuaren** interesen aurrean (56).

Egungo ekonomiaren mekanismoek kontsumo **larria** sustatzen dute, baina ekitate ezarekin bat eginik, neurrigabeko kontsumismoak kalte bikoitza eragiten dio gizarte-ehunari. Halaxe, ekitate faltak, berehala ez bada geroago, arma-las-

terketek inoiz konpondu/ko ez duten **biolentzia** sortzen du. Honetarako baino ez dute balio: segurtasun handiago eskatzen dutenak engainatzeko, gaur egun jakingo ez bagenu bezala **armek eta bortxazko errepresioek** konponbideak baino gatazka gehiago eta okerragoak baino ez dituztela sortzen. Batzuk, beste barik, atsegin hartzen dute txiroei eta herrialde pobreei euren gaitzen errua leporatuz, bidegabeko orokorkeriak eginez, eta non jartzen dute konponbidea? lasakerian murgilaraziko eta **izaki otzan, domestikatu eta "ez-kaltegarri"** bihurtuko dituen **"hezkuntza"** motan (60). *Sekta honek kitzikatu egiten nau... heretikoa da; baten bat konbertitu nahi?* (Letra etzanekoa salbu, dena Jorge Bergoglioren "Evangelii Gaudium" idazkitik, zenbakiek nondik. Itzulpena nirea da, litezkeen akatsak bezala). Berba-atzea: Etikak, merkatuaren kategorietatik kanpo dagoen erantzun konprometitua espero duen Jainko batengana garamatza (57).



KOLABORAZIOA

Argazkiak: Pedro Luis Ormazabal eta Felipe Uriarte

Korpus Jaiak eta Nepal Turismo Bulegoan

Testua: Turismo Bulegoa

Azken mendeetan herri honek tradizioa eta Alerlijioa eskutik izan ditu, eta hori egiaztatzeko urteko jaien egitarauari begiratu baino ez dago. Apirila amaiera aldera hasten den jai errosarioa harrigarria da. Ekainerako baina, herrian izaten den ospakizunik garrantzitsuenetakoa guztion gozagarri izango dugu, Korpus Jaiak.

Oñatiko Korpus jaiak 1468. urtean izan dezakete bere sorburua, eta gaur egun ere badute bere lekutxoia oñatiarren bihotzetan. Ospakizun honen inguruko hamaika gauza jarri genitzake lerrootan, baina ez dago uneak berak sortzen eta transmititzen dituen zirrara horiek baino ezer zuzenagorik.

Dena den, aurtten, Oñatiko Turismo Bulegoak Korpusak gertuagotik ezagutzeko aukera eskainiko du. Horretarako Ekainaren 1etik 14ra Korpus Jaien ekitaldi nagusiko argazkien erakusketa bat egongo da **Pedro Luis Ormazabal** argazkilariaren eskutik. Turismo bulegoa bera jai hauen ezauzarrietara atonduko da, eta **Iñaki Jauregi**aren zerbait lan ere ikusi ahalko dira bertan.

Ekainaren 3an Korpus jaien inguruko hitzaldi bat emango du **Jose Antonio Azpiazu** historialariak arratsaldeko 7etan. Ekainaren 6an eta 7an **bisita gidatu bereziak** egingo dira ospakizun hau gaitzat hartuta.

ERAKUSKETAK

> KORPUS JAI Ekainak 1-14

Pedro Luis Ormazabalen argazki erakusketa. Iñaki jaltzoren artelanak ere ikusgai egongo dira

> NEPAL Ekainak 16-28

Felipe Uriarte Mendi gidariak Nepalen ateratako argazkien erakusketa

NEPALEKO HONDAMENDIA GOGOAN

Ospakizun horretatik, azken asteetan une gogorak bizitzen ari diren nepaldarregana inguratuko gara.

Euskal Herria eta Nepal aspaldidanik daude anaituta gure mendizaletasuna bidelagun delarik. Asiako lurralde honetan pairatzen ari diren lurrikarak eta triskantza horrek eragindako kalteei gure ekarpen txoa egite aldera, **Felipe Uriarte** mendizaleak Nepalen izandako egonaldietan jasotako argazkien erakusketa bat egingo du ekainaren 16tik ekainaren 28ra, Oñatiko Turismo Bulegoan egongo dena.

Nepaleko herriari laguntzeko bestelako ekitaldiak ere izango dira datozen egunetan.


EKAINAK 10

Diapositiba emanaldia kultur etxean (19:00)

EKAINAK 12

Pintxopote solidarioa Nepaleko pintxoekin Foru enparantzan (18:30-21:00). Eta diaporama: 'Nepal lagunduz' ITSULAPIKO SOLIDARIOAK

Ekainaren 10etik aurrera Nepalerako dirua biltzeko itsulapikoak egongo dira kultur etxean, kiroldegian eta turismo bulegoan.





MAPFRE

 Oñati

Partu kale, 5
 20600 Oñati

Tel.: 943 78 12 65
 Faxa: 943 78 07 85

CORTABARRIA

 INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Selmenta
- Haztendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@telefonos.es

ELKARRIZKETA | Udanako Igoera dela eta hitzaldia emango du Oñatin ekainaren 12an

Munduko rally txapelketan eta Dakarrean parte hartzen duen piloto elbarria

Albert Llovera
Pilotua



Kontzeju | 24 | peñik

Hamargarren edizioa du aurten Udanako Igoerak, eta hori ospatzeko egitarau berezia prestatu dute. Besteak beste, Albert Llovera (Andorra, 1966) pilotuaren hitzaldiaz gozatu, hunkitu eta ikasteko aukera izango dugu. Izan ere, harritzeko modukoa baita Lloveraren bizitza eta ibilbidea. 18 urte zituela elbarri geratu zen bularretik behera, Europako Kopako eski konpetizio batean izandako istripu baten ondorioz. Kolpe izugarria izan zen, baina Lloverak egoerari buelta ematea lortu zuen, eta nola gainera! Handik bi urtera rallyetan lehiatzen hasi zen. Espainiako txapelketa izan da, eta munduko WRC txapelketa ere parte hartu du. Aurten Dakar rallya ere amaitu du, aurrean jartzen zaion edozein oztopo gainditzeko kemena duela erakutsiz.

Zure egoeran beste edozein hondoratu egingo zen. Zuk, aldiz, buelta eman zenion, eta nola gainera!

Beti esaten dut hiru faktore klabe daudela: alde batetik norberaren jarrera eta aurrera irteteko gogoia. Eta horrekin batera, familia eta lagunak, benetako lagunak.

Lortu duzuna ikusita, polita eta erraza ematen du, baina zuk ere pasako zenuen zeure gurutzebidea, ala?

Jakina! Ni bularretik behera nago elbarri, baina besoak, eskuak, burua... behintzat ondo dauzkat, eta daukazunarekin borrokatu behar duzu, bizitzan gauza asko egin daitezkeela pentsatuz.

Istripuaren ondoren erreabilitazio programa gogorra egin nuen urtebetez. NASAk aukeratu ninduen elektroestimulazioarekin

PARAPLEJIA
18 urterekin elbarri geratu zen bularretik behera, Europako Kopako eski konpetizio batean izandako istripu baten ondorioz

esperimentatzeko, eta Estatu Batuetan egon nintzen ia urtebetez. Ez nuen aurrerapenik egin, baina fisikoki behintzat indartu egin nintzen. Ikasteko aukera ere izan nuen, eta saskibaloian jokatzeko aukera ere bai.

Eta nola iritsi zinen kotxeen mundura?

Nire amaren "erruz". Ameriketatik itzultzean ama tematu zen inguruko petrikillo guztiengana joan behar nuela, eta, hala, urtebetean 100.000 kilometro egin nituen. Gustua hartu nion. Gauean, diskotekara joan ordez, eski estazioetako parkinetara joaten ginen elurretan gidatzera eta ez nuen gaizki egiten.

Eta konpetitza erabaki zenuen. Bai, baina bi urtez borrokatu behar izan nuen lizentzia lortzeko. Egu-

nero joaten nintzen federazioira pelmada ematera, lortu nuen arte. Neu izan naiz lehen elbarria muduan minusbaliarik ez duten pertsonekin parez pare lehiatu dena, kirol guztiak kontuan hartuta.

Rallyetako Peugeot Kopan, Europan den promozio txapelketarik inportanteenean parte hartu nuen, eta irabazi egin nuen.

Gero Renault-ek zirkuitoetan lehiatzeko aukera eskaini zidan. Oso lan ona egin genuen kotxe-ko mandoak hobetzeko *Guido-simplex* enpresarekin batera.

Gero Citroen etxearen ZX Kopan parte hartu nuen, Jon Casais oñatiarra eta beste euskaldun batzuekin batera (Goiburu, Irizar, Mostajo...).

Urte politak izan ziren, baina nik rallyetara itzuli nahi nuen eta, zorionez, Fiat etxeak eman zidan aukera 2000. urtean. Zuzenean munduko txapelketa joan ginen. Gero Espainiako lur gaineko rallyetan ere ibili naiz; 2012an txapelketa izan nintzen, eta 2013an azpitxapeldun. Iaz saldu egin nuen kotxea, eta orain zain nago ea zer irteten den.

Eta hori gutxi balitz, aurten

Dakar rallya amaitu duzu. Nire hirugarren Dakar-a izan da. Lehenengoa, 2007an, Afrikan, azken biak Hego Amerikan. Iaz hiru etaparen faltan utzi behar izan nuen, eta aurtent lortu dut amaitzea. Oso gogorra da; bero handiak, kilometro asko, hautsa... Ez bakarrik karreran, *vivac*-etan ere harea egoten da, eta horrek zaildu egiten ditu gauzak gurrpil aulkian dagoenarentzat, eta ez da behar bezala atsedent hartzen. Baina bueltatzea esperodut.



DAKAR
AURTEN DAKAR RALLYA AMAITZEA LORTU DU LLOVERAK. BERE HIRUGARREN PARTEHARTZEA IZAN DA.

Kotxez ari gara, baina beste kirol batzuk ere egiten dituzu, ezta?

Eskia, igeriketa, tenisa, gimasia... Uda partean asko ibiltzen naiz jeitsierako bizikletan; bizikleta berezi bat da, eta eski estazioetan ibiltzen gara, pistetan behera. Paraxutean ere egin dut salto. Aukera baldin badago, gauzak probatzea gustatzen zait.

Zeure negozioa ere badaukazu. Bai. Ortopedia ikasketak egin nituen, eta ortopedia bat daukat Andorran. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako produktuak saltzen ditugu eta, gainera, kirol arloan espezializatuta gaude.

Zertaz hitz egingo duzu Oñatin?

Nire bizitzaz. Zer egiten nuen istripua baino lehen, zer gertatu zitzaidan, eta, batez ere, nola joan naizen aurrera egiten istripuaren ostean. Azken batean esan nahi dut oso inportantea dela aktibo egotea; etxean gertatu ez zaizula inor bila joango.

“NIRE AMAREN “ERRUZ” HASI NINTZEN KOTXEEN MUNDUAN. INGURUKO PETRIKILLO GUZTIAK BISITATU BEHAR NITUELA TEMATU ZEN, ETA URTE BATEAN 100.000 KILOMETRO EGIN NITUEN”

EGITARAUA (Udanako X. Igoera)

Ekainak 11 (Osteguna)

Santa Ana, 19:30
'Senna' dokumentala.



Ekainak 12 (Ostirala)

Santa Ana, 19:30
Albert Lloveraren hitzaldia.

Ekainak 12-13

Santa Anan
Rallyen gaineko argazki erakusketa. Eguraldi ona bada, ekainaren 13an plazako arkupetan jarriko da.

Ekainak 13 (Larunbata)

UDANAKO X. IGOERA

10:30-12:30
Egiaztapenak
Enpresagintza fakultateko (Ibarra) aparkalekuan.

13:15
Autoak plazatik Udanarantz.

15:00
Lasterketa.



PLANTXaprest
Plantxa zerbitzua
Esther Otxoa-Aizpurua

ZERBITZU AZKARRA ETA EROSOA
Arropo garbia jasotzen jarraitu gero.
Al erabiltzen, plantxakutako baliabeteak diraztu. **DEITU!**

Telefonoa: 662 041 498

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Carmelo Pérez de Almaraz
'Gure bezerren eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu'.

Tel: 679411444
www.almaraz.info

IBILBIDEAK

XTERRA BASQUE COUNTRY

Mendiko triatloia jokatu da Arantzazun ekainaren 21ean

Fortuna Kirol Elkarteak antolatuta, XTERRA BASQUE COUNTRY kros triatloia jokatu da ekainaren 21ean, XTERRA mundu mailako zirkuitorako puntuagarria. Urbarri Ganboako urtegiari hasiko da proba, igeriketako diziplinarekin. Gero, mendi bizikleta hartu eta Arantzazuraino etorriko dira lehiakideak, Elgeako mendilerroa zeharkatuz. Azkenik, zapatillak jantzi eta Urbiako joan-etorria osatu beharko dute korrika, santutegian amaitzeko. 500 lehiakide izango dira.

'PRO' Distantzia

-Igeriketa: 1.500m
-BTT: 38 km.
-Korrika: 11,5 km.

'OPEN' Distantzia

-Igeriketa: 1.000m
-BTT: 30 km.
-Korrika: 5,6 km.

Nordic Walking

Kirol jarduera berria eskainiko du Zubikoa kiroldegiak uztailan

Gero eta indar handiagoa hartzen ari den 'Nordic Walking' izeneko kirol jarduera probatzeko aukera izango dugu uztailan Zubikoa kiroldegian.

Europa iparraldetik datorren kirol bat da. Martxa modalitate bat da, fondoko eskian oinarria duena. Bereziki diseinatutako bi makilekin ibiltzean datza, eta makilak mugitzeko teknika bati esker, hankak ez ezik, gerritik gorako gorputz atalak ere lantzen dira. Gorputzeko giharren %90 aktibatzen dira Nordic Walking teknikaren bidez.

Edozein adin eta kondizio fisikoko pertsonentzako egokia da. Ibiltzea baino eraginkorragoa da, eta korrika egitean baino askoz gutxiago kargatzen ditugu artikulazioak. Beraz, oso kirol egokia da korrika egin ezin dutenentzat, eta paseatzea baino zerbait gehiago egin nahi dutenentzat. Makilekin ibiltzeko teknika erraz ikasten da, eta esaten dutenez, probatu dutenak harrapatuta geratzen dira.

BI TALDE ETA BI TXANDA

Bi talde antolatuko dira. Bata goizez (astelehen eta asteazkenetan 10:30-11:45), eta bestea arratsaldean (astearte eta ostegunetan, 18:45-20:00). Lau saio guztira, bi astetan. Lehenengo txanda uztailaren 6an hasiko da eta bigarrena hilaren 20an. Prezioa, 22,25€ txandako (bazkide ez direnek 28,63€). Kiroldegiko harreran eman behar da izena.



> **Nordic Walking teknikari esker, hankak ez ezik gerritik gorako gorputz atalak ere lantzen dira. Gorputzeko giharren %90 aktibatzen dira**

YOGAREN MUNDU EGUNA



Ate irekien eguna ospatuko dute Oñatiko Yoga Eskolan

Yogaren Mundu Eguna izendatu dute ekainaren 21a, eta hori ospatzeko ate irekien jardunaldia antolatu dute Oñatiko Yoga Eskolan (Bidebarrieta 28-behea). Hainbat ekintza antolatu dituzte, herritar guztiei irekiak:

- 10:00-10:30 Hatha Yoga saioa
 - 10:30-11:00 Hitzaldia: Yogaren onurak
 - 11:00-11:30 Erlaxazio saioa
 - 11:30-12:00 Hatha Yoga saioa
 - 12:00-12:30 Hitzaldia: Yogaren onurak
 - 12:30-13:00 Erlaxazio saioa
 - 13:00-13:30 Hatha Yoga saioa
 - 13:30-14:00 Hitzaldia: Yogaren onurak
 - 14:00-16:00 Luntxa (Izena eman behar da: 610953794 / yogaonati@gmail.com).
 - 16:00-16:30 Erlaxazio saioa
 - 16:30-17:00 Hatha Yoga saioa
 - 17:00-17:30 Hitzaldia: Yogaren onurak
 - 17:30-18:00 Erlaxazio saioa
 - 18:00-18:30 Hatha Yoga saioa
 - 18:30-19:00 Hitzaldia: Yogaren onurak
- <http://sanatana-dharma.eu/yogaonati>

caravanas **Oñate**

• GALDARAGINTZA - CALDERERIA
 Oñateko zabalzarria, 25 • Tel.: 943 71 63 60
www.caravanasoñate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
 Oñateko zabalzarria, 25 • Tel.: 943 71 65 65
 Atzeko kale, 32 (erakusketak)

Antzerkiaz gozatu eta ikasteko gunea sortu da Oñatin



> Antzerkirako zaletasuna duten herritar guztiei dago irekia <

Sortu. Bizia eman. Horixe esan nahi du irazanek, eta horixe da, hain zuzen ere, sortu berri den Irazan Antzerki Gunearen helburua: antzerkizaletasunari bizia ematea Oñatin.

Lau lagun (Itziar Arkauz, Josu Zubia, Nerea Ormazabal eta Mainer Igartua) daude ekimen berri honen atzean. Ez daukate esperientzia handirik antzerkigintzan, baina bai zaletasuna, eta afizio hori berori duten beste herritar batzuekin bat egin nahi dute, antzerkiaz gozatzeko eta elkarrekin ikasten joateko.

EZ DA ANTZERKI ESKOLA BAT

Garbi utzi behar da, beste ezer baino lehen, hau ez dela antzerki eskola bat. Planteamendua ez da hori. Itziar, Josu, Nerea eta Mainer ekimen honen sustatzaile edo bideratzaileak dira, baina hori

bakarririk. Ez dira irakasleak; ez dira adituak. Helburua da taldean funtzionatzea; hau da, antzerki zaletasuna duten herritarrak batu, talde-giro jatorra eta goxoa sortu, eta hortik aurrera taldea bera izango da helburuak, beharrak eta nahiak finkatuko dituen. Alegia, taldean erabakiko da jarraitu nahi den bidea, eta unean uneko plangintza.

Irazan Antzerki Gunearen baitan bi talde eratuko dira adinaren arabera: gazteena, 11-16 urte artekoentzat, eta helduena, 16 urtetik gorakoentzat

FORMAZIO SAIOAK

Taldeak marraztuko duen bide horretan aurrera egin ahala, beharrak sortuz joango dira eta, hala, tarteka, 'masterclass' erako formazio saioak antolatuko dituzte, taldekideek dituzten behar eta gabeziei erantzuteko. Horretarako antzerkigintzan adituak eta arituak diren pertsonak ekarriko dituzte, formazio prozesuan laguntzeko. Beraz, bidea eginez ikasten joatea da asmoa, unean unean sortzen diren beharrei erantzunez.

Antzerkiaz gozatu eta ikasteaz gain, sortzea eta interpretatzea ere izango da Irazanen helburu nagusietako bat; hau da, antzerki gunean landutakoa herrira zabaltzeko asmoa ere badute, eta formato ezberdinetan arituko dira gainera, antzoki edo eskenatoki klasikoe-tara mugatu barik.

IRAZAN ANTZERKI GUNEA

> INFORMAZIO BILERA

ekainak 11, osteguna, 18:00, Eltzian (ETEO zaharra)

Irazan Antzerki Gunearen egitasmoari buruzko informazioa emateko bilera irekia. Antzerki zaletasuna duten herritar guztiak daude gonbidatuta.

> FORMAZIO SAIOA

ekainak 25, 26 eta 29

Motorrak berotzen hasteko, formazio saio bat antolatu dute Irazan taldeko kideek. Antzerki-gintzako oinarritzko teknikak lantzeko aukera egongo da Eñaut Gantxegi aktore donostiararren eskutik Informazioa eta izen-ematea: irazantaldea@gmail.com.



(bakoitzaren disponibilitatearen arabera betiere) formazio saioetan ikasitakoa gazteei transmititzeaz.

'ELTZIA'-KO KIDE

Irazan Antzerki Guneak Eltzian (ETEO zaharrean) du egoitza, eta bertan herriko beste hainbat talde eta sortzaile ere badaudela kontuan hartuz, hartu-eman edo kontaktu horretatik elkarlana eta proiektu interesgarriak sortuko direla uste dute Irazan taldekoek. Herrigintzatik edango duen proiektua izango da eta, beraz, herrian sortzen diren ekintzetan parte hartzeko asmoa ere badute, beste kultur eragileekin proiektu berriak sortuz.

Ekainaren 11rako informazio bilera deitu du Irazan taldeak proiektuari buruzko informazioa emateko. Modu batera edo bestera antzerkiarekiko zaletasuna duten herritar guztiak daude gonbidatuta. Gero, ekaina amaierarako, formazio saio bat ere antolatu dute, motorrak berotzen hasteko. Beraz, lotsak alde batera utzi eta animo!

MOTZEAN

San Juan sua indartuta dator aurten

San Juan suaren inguruko festa indartu egin nahi du Udalak. Herritarren parte-hartzea indartzeko 'Herrixa Dantzan' saioa egingo da, eta afari-tertulia ere egongo da Kike Amunarrizekin. Hona egitaraua:

EKAINAK 23, MARTITZENA

19:00 Herrixa Dantzan, Erdizka Lauetan taldearekin.

22:30 Kantu herrikoiak eta Oñatz dantza taldearen emanaldia suaren inguruan. (22:00-22:30 artean aukera egongo da alde batera utzi nahi diren gai zaharrak orritxo batean idatzi eta sutara botatzeko).

EKAINAK 25, EGUENA

20:30 Afari-tertulia Kike Amunarrizekin Makalena elkartean. Txartelak Txokolateixan salgai 12€-tan (ikasle eta langabeak 8€).

Udako EGA ikastaroa

Uda partean (ekainak 29-uztailak 17 eta irailak 1-8) EGA prestatzeko ikastaroa eskainiko du Udal Euskaltegiak goizez (09:00-13:30). Matrikula epea ekainaren 20ra arte. Prezioa, 156€. (Informazioa: 943782496).

Arrikruzeko lehoiaren misterioa

Arantzazun seminarista zela 35.000 urteko lehoiaren hezurdura aurkitu zuen Iñaki Zubeldia idazleak aurkikuntza hartan oinarritutako ipuina idatzi du 'Leize-zuloko misterioa' (Ibaizabal) 10 urtetik gorako gaztetxoztat.



Irazan Gunea ez da antzerki eskola bat. Helburua da taldea sortzea eta taldean funtzionatzea. Denon artean markatuko ditugu helburuak, beharrak eta nahiak

HELDUAK ETA GAZTEAK

Adinaren arabera bi talde eratuko dira Irazan Antzerki Gunearen baitan: gazteena, batetik, 11-16 urte artekoentzat; eta helduena, 16tik gorakoentzat.

Dinamika beretsua jarraituko dute talde bietan; hau da, taldean hartuko dira erabaki guztiak. Formazioari dagokionez, helduen taldeko kideak arduratuko dira

ANE MERTZERIA

- Joateko zarak
- Lentzeria
- Umeon jantzizak

Kale Barris, 54 DNATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. ONATI

Oñatiri buruzko

JAKINGARRIAK

> Oñatiko armarrria: arranoa eta oreina

Arranoa eta oreina. Garibaitarrak eta Uribarritarrek. Erdi Aroan Oñatin izan ziren bi leinu nagusiak eta beraien arteko liskarrak irudikatzen ditu udalaren armarrriak.

Arranoa Lazarraga-Garibaitarren ikurra zen. Hauek Torreauzoko Etxe Aundin zuten sortetxea, eta Ganboatarren aldekoak ziren.

Oreina Uribarritarren ikurra zen. Hauek Murgia auzoko izen bereko etxean (gaur egungo Jauregi baserria) zuten sorlekua, eta Oñaztarren aldekoak ziren.

Ezinikusia eta gorroto handia omen zegoen bi leinuko artean. Juan Perez Lazarragakoaren XVI. mendeko kronika baten arabera, egun batean Uribarritarrek mendeku hartu nahi izan zuten, aurretik jasandako irain edo kalteren batengatik, eta etsaiaren gari soro guztiak hondatu zituzten beraien ganaduekin, baina eguzkia izkutatutako orduko Lazarragatarrek Uribarritarren ahaide nagusia eta bere semeak hil zituzten. XIV. mende hasieran gertatu omen zen borroka odoltsu hau, Iñaki Zumaldek 'Historia de Oñate' liburuan azaltzen duenez. Borroka hori irudikatzen da, hain zuzen, Oñatiko



Kontzejuak 1775ean erabaki zuen armarrria sortzea



Oñatiko bi leinu nagusiak eta hauen arteko liskarrak irudikatzen ditu armarrriak



Aurretik Mikel Goiaingeruaren irudia zeukan zigilua erabili izan zuen Kontzejuak

armarriaren behealdean, arranoak bere atzaparrak oreinaren gainean dituelarik gari sail batean.

Denborarekin baretuz joan ziren leinuen arteko tirabirak. Liskarrek mendeetan iraun bazuten ere, gehienetan hitzezkoak izaten ziren. Askotan erdiko bidea hartu behar izaten zuten konpontzeko. Alkatea aukeratzeko orduan, esaterako, txandakatzea adostu zuten; urte batean Garibaitarra eta hurrengoan Uribarritarra. Probilegio horrek 1745era arte iraun zuen.

NOIZKOA DA ARMARRRIA?

Oñatik ez zuen eduki udaletxerik XVIII. mendeko bigarren erdira arte, eta, beharbada, horregatik, ezta armarririk ere. Ordura arte, 1557tik gutxienez, Mikel Goiaingeruaren irudia eta 'Principe San Miguel de Oñate' testua zeukan zigilua erabili zuen kontzejuak.

Udalak 1775eko batzarrean erabaki zuen gaur egun ezagutzen dugun armarrria egitea, udaletxea eraikitzeko lanak egiten ari zirela.

Mendeetan zehar liskartuta egon ziren bi leinuak armarrri berean batuz, herriaren boterea irudikatu nahi izan zuen Kontzejuak armarrri berriarekin, Kondearen agintea gainbeheran zetorren garaian.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Berria, 11
Lizaur A. 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK

LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

S distira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solariluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa

San Lorenzo 4. behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

HISTORIA TXATALAK

Noiztik dantzatzen da aldarean?



> Tradizio handikoa da Gorpuzti jaia Oñatin. XV. mendeko izkribu eta agirietan azaltzen dira, jada, ospakizun honi buruzko aipamenak. Badakigu 1526rako bazela Oñatin Sakramentu Santua goratzeko kofradia bat, eta 1541ean agertzen da aurrenekoz prozesioaren aipamena.

Ez dakigu zehatz-mehatz noiz hasi ziren dantzariak prozesioan parte hartzen, baina 1560ko parrokiako liburuetan azaltzen dira dantzariei egiten zaizkien ordainketen berriak.

Partehartze inportantea dute dantzariek Gorpuzti jaian, eta eguneko unerik berezietakoa izaten da parrokiako aldarean Banakoa dantzatzen dutenekoa.

Baina askok ez dakitena da, aldarean dantzatzeko ohitura ez dela hain zaharra, eta kasualitatez hasi zela 1972an. Urte hartan eliza barruan egin behar izan zuten prozesioa euria ari zuelako, eta prozesioaren amaieran plazan egin ohi den erreberentziazko dantza aldarean egitea erabaki zuten Jose Maria Agirrebalzategik. Orduetik Banakoa dantza egiten da urtero Aita Gurearen aurretik.

Santxolopeztegi

> Jerardo Elortza

Izen askoren jabe izan da auzo hau historian zehar. **Balantzategi** moduan ezagutzen zen XV. mendearen azken aldera eta XVI.ean; **Santxolopeztegi** izena ematen diote hurrengo gizaldietako dokumentuek; **Santxolopeztegi** eta **Antsolopeztegi** bezala ere ikusiko zenuten azken berrogei urteotan han eta hemen; aurrekoen aldaera gisa **Txantxipilize(g)i** forma erabili izan da gaur arte Oñatiko ahozko hizkeran; eta, beharbada, **Madalena** esanda ulertzen dugu oñatiar gehienok zein den auzo hau. Azken kasu honetan bertako ermitak izendatzen du auzoa; besteetan, berriz, inguru hartako baserriek.

Hainbeste izen eduki arren, lurrez **ez da auzo zabala**. Hedaturaz Oñatiko txikienetakoa izango da, baina **oso kokapen egokia** duena. Santxolopeztegi osatu izan duten hamalau baserriak, batzuk bi bizitzakoak, Oñati-Artixa erreka inguruan daude, lur laueta edo alda handi gabekoetan. Beraz, **nekazaritzarako aproposak** izan dira. Dena den, azken berrogei urteotan aldakuntza nabarmena eman da Madalena aldean, herriko beste auzoetan legez. Pare bat kenduta, etxeak ez dira desagertu, baina **industriak ordezkatu ditu laborantzako lur-sail gehientsuenetan**.

AUZORIK AUZO

Azken 40 urteotan aldakuntza nabarmena eman da Madalena aldean

Auzo honetako tokirik aipagarriena, agian, **Madalena** ermita dugu. Historia luzea eta aberatsa du, XVI. gizaldian Frantzisko Borja jesuita santua han bizi izan zelako; eta arte, historia eta etnografia aldetiko lekuko interesgarriak gordetzen dituelako. Duela urte batzuk, ihartu eta hondatu egin zen, tamalez, ermita aurrean zegoen **arte bikaina**, baina inguruan zutik irauten dute oraingoz beste testigu historiko batzuek: besteak beste, **galtzada zaharraren zatitxo bat**, Zubillagako olarako ura biltzen zuen **presa historikoa** edota errepide ertzeko **santutxo**.

Santxolopeztegi baserri batzuk zenbait **euskal deituren sortetxeak** izan dira. Galzorian dauden bi aipatuko ditugu lehenik: **Izurategi**, garai batean Goitiko, Pardioskoa eta Antuena baserriei izena ematen ziena (abizen hori Oñatin ezkutatu da, baina Leintz aldean gelditzen dira banaka batzuk); eta **Balantzategi**, Oñatiko izen bereko baserrian jatorria duena, Arrasateko beste batekin batera (Oñatin desagertzeaz dago eta Leintzen ere oso gutxi geratzen dira). Ugariagoak ditugu eskualde hauetan madalenatarrak diren beste abizen batzuk: **Urteaga**, **Anduaga** edo **Osinaga**, esaterako. Baina hauek beste toki eta herri batzuetan ere izan dezakete euren jatorria.



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

5ta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIKIN ENPOTRATUTAKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Larreate auzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI



Baserriko ogia, egurrezko laboreak

AGENDA

06 MAIATZA



MUSIKA

> EKAINAK 15 / 18:30

Pake Lekuko abesbatzaren kontzertua.

Pake Lekuko 'Aloña' eta San Josepe (Bergara) abesbatzen emanaldia Santa Anan.

> EKAINAK 19 / 18:30

Musika Eskolako ikasleak Lazarraga parkean'. Ikasturte amaierako kontzertua. Akordeoi, trikitixa, metal, haize eta rock taldeak.

> EKAINAK 20 / 18:00

Ganbara Uda Mix'. Ganbarako txikitxoaren kontzertua Santa Ana aretoan.

> EKAINAK 26 / 19:00

Ganbara Abesbatzaren kontzertua Bidaurretan'. Kanean egitarauaren barruan Bidaurretako elizaren kanpoaldean abestuko du Ganbara abesbatzak.

> EKAINAK 28 / 19:30

Rhythm and Blues kontzertua PAKO tabernan.

RIFFS and CHIPS taldea Pako tabernara itzuliko da, bere bigarren diskoa aurkeztera.

Oñati Abesbatza eta Bergarako Orfeoien kontzertua

> EKAINAK 14, 19:00 PARROKIAN

Oñati Abesbatzak eta Bergarako Orfoiak eta Ganbara Orkestrak Gabriel Fauré-ren (1845-1924) Requiem-a abestuko dute. Musikaren historiako obra ederrenetako bat da. Gainera, orkestrazio erromantiko ikaragarria duen Rheiberger-en mezarik ezagunena ere abestuko dute. Sarrerak Txokolateixan eta Portu eta Izarraitz tabernetan.

HITZALDIAK

> EKAINAK 16 / 17:30

'Nola zaharketan dira gure hezurak'.

Jose Ramon Galarza medikuaren hitzaldia Santa Anan, Pake Lekuk antolatuta.

IKUSKIZUNAK

> EKAINAK 6 / 17:30

'Kondaira baten truke'. Haurrentzako ikuskizuna, 'Pirata Tropikala' taldearen eskutik, Etxaluzeko parkean (eguraldi txarra eginez gero Zubikoan).

KIROL EKITALDIAK

> EKAINAK 6 / 15:30

Txantxiku Igeriketa Saria. Zubikoan. Igerilekua itxita egongo da arratsaldean.

> EKAINAK 6 / 16:00

Herriko arrantza txapelketa. Pago Usok eta Alzu dendak antolatuta, Torreazuko zubian 16:00etan hasita.

> EKAINAK 14 / 12:00

Gimnasia Erritmikoa. Gimnasia erritmikoko taldeen ikasturte amaierako erakustaldia kiroldegian..

> EKAINAK 14 / 16:00

Txirindulari proba. XXIX. Olakua saria Kadete mailako txirindularientzat.

> EKAINAK 20 / 09:00-14:00

Basoko Arku Tiraketa. Txantxiku Arkulariak taldeak antolatuta, arku-tiro txapelketa Mikeletetxe inguruan..

> EKAINAK 28 / 11:00

Torreuaozoko Krosa. Antxintxiketan kirol elkar-teak antolatuta, Torreazuko eta Olate arteko XVIII. Herri Lasterketa.

> UZTAILAK 4 / 9:00-14:30

Oñatiko II. Patin Eguna. Tatarraz Patin Elkar-teak antolatuta.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



Jakoba Errekondoren hitzaldia

> **EKAINAK 22, 18:30**
ELTZIAN (ETEO ZAHARRA)

Jakoba Errekondu agronomo eta paisajista ezagunak 'Bizi Baratzea' liburua aurkeztuko du Eltzian (ETEO zaharrean).

AUZOETAKO JAIXAK

- > **EKAINAK 14**
KOIXKAREko jaia
- > **EKAINAK 19-21**
OLAKUAKo jaia.
- > **EKAINAK 20-21**
GARAGALTZAKo jaia.
- > **EKAINAK 26-28**
TORREAUZO eta ZUBILLAGAKo jaia.
- > **UZTAILAK 2-5**
XIX. GARAGARDO FESTA
Aloña Mendi kirol elkarteak antolatuta.

JAIALDIAK

> **EKAINAK 6 / Egun osoan**
URGAIN EGUNA.

Herriko ikastetxe publikoek eta bertako guraso elkarteek antolatuta. 11:00 Jolasak; 14:00 Bazkaria instituto aurrean. Ondoren, tailerrak, kirol festa eta Dja.

> **EKAINAK 13 / Egun osoan**
ELKAR HEZI EGUNA.

Elkar Heziko guraso, ikasle eta irakasleek antolatuta: 09:00 Sormen tailerrak; 10:30 Bizikleta konponketa tailerra plazan; 11:00 Txontxongilo eta eskulan tailerrak plazan; 11:30 Rock and Rolla txiki-entzuz Gariren eskutik Gaztelekuan; 11:30 Gynkana; 13:30 Bergarako 'Funky' dantza taldearen saioa plazan; Goizean zehar puzgariak plazan. 14:00 Bazkaria kiroldegian, eta erromeria.

> **UZTAILAK 4 /**
ORTUZABALA EGUNA.
'Ortuzabala' kontsumo taldearen eguna. Tailerrak, musika eta bazkaria.

OHAR ETA DEIALDIAK

> **KINTTADIA** 1965ean jaiotako oñatiarrok ospakizuna dugu ekainaren 27an (larunbata) Etxe Aundi jatetxean. Animatuz gero, Araceli (636857563) edo Gerardo-kin (610953794) harremanetan jarri.

> **ARGAZKI LEHIAKETA** Buruko gaixotasuna duten pertsonen eta hauen senideen Gipuzkoako elkarteak antolatu du 'Buru osasuna fokatu' izenburupean. (<http://agifes.org>).

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



CD MUSIKA
"Judith Jauregui"



CD MUSIKA
"Shawn Mendes"



CD MUSIKA
"Childhood Home"



CD MUSIKA
"Cristina Rosenvinge"



CD MUSIKA
"Granada: Perez Cruz"



CD MUSIKA
"Paradoja: R. Berrio"

MERKATU TXIKIA

- > **Babes Ofizialeko etxebizitza** salgai San Martinen. 3 logela, 2 komun, trasteleku eta garaje irekiarekin. Deitu: 666340613
- > **Pisua** alokagai Errekalden. 3 logela, sukalde-egongela, 2 komun, 2 balkoi. Etxe berriztua eta oso argitsua. Deitu: 659836386
- > **Klase partikularrak** Esperientzia handiko irakasleak klase partikularrak ematen ditu udan eta urte osoan (Jaione) 943782843 / 653718030
- > **Garajea** salgai edo alokairuan Arantzazuko Ama kalean. Garaje itxia (15m²). 652737631
- > **Etxabola** berriztua salgai Araotzen. 50m². Interesatuak deitu: 652737631
- > **Etxebizitza** salgai Kasablankan. 2 logela, bainugela bat, egongela, sukaldea eta garaje plaza bat. 120.000€ deitu: 655394548

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI

Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

not+vello

Olakua 18, behea ☎ 943716713

Udaren irudi-fotoduplazio seguru eta iraukaria SUN&SAFE teknologiari esker

30€ Tarifa finkoa (zein/zona) FOTODEPLAZAMENAK

15€ 2X1 zona finkoetan AZALERDI GARRINETAK

PL. GAZTETZEA

OPARI TARTETSLAK



ITTEN BAT

(* Itten: arrastua, pista)

Dagokixon aditza jarri

1. Nere gurasuairi lehen sarixa tokau San Migel Txikittako errifan.
2. Aizu, seme, aittak eta bixok Mondraguera fan biharra dakogu.
Eruango automobilian?
3. Mutik honek ahalegiña egingo aidian etarako leuke kursua.
4. Aizu, Xabier, jakin leike atzo zer esan zure arrebiari holako bekozkuia jarteko?
5. Ezta hain zailla. Zeuk be egin ariketa hori.

Aukerak: baleu / zotsan / zeike / xate / gaizu

Beste era batera esan


1. Bape lorik ez egin:
2. Aurpegi txarra ifiñi:
3. Esperantza barik egon:
4. Agopeian barriketan jardutia, gaizki esaka-edo:
5. Esan dan zerbait borobilddu edo inddarketako berbia:

Aukerak: etsitta egon / marmaxika edo murmuxetan ibilli / horregatio! / begirik ez batu / bekozkuia ifiñi

Kurtzegramia

DEFINIZIÑUAK

1. Eskulekua; ekintzetan edo berbetan baldarra, takarra.
2. Aurpegixaren alboko aldia, surraren eta belarrixaren artian daguena, begi azpittik okotzeraiño aillegaitten dana.
3. Uhetik jaiki ondoren batzuetan izaten dan umore txarra.
4. Betik jenixo txarrarekin dabillena.
5. Kili-kolo. Dilin-dolonka.
6. Heldu, oratu....



Sinonimuak

- | | |
|-------------|---------------|
| 1. Tankeria | A. Erana |
| 2. Zornia | B. Lotxua |
| 3. Lekaixua | C. Itxuria |
| 4. Zurruta | D. Pusunixia |
| 5. Lokamusa | E. Irrintzixa |

Esaera Zaharrak osotu

1. Gaztiak ordu segururik ez, zaharrak
2. Egi hutsa,
3. Amen! Zu hor eta
4. Umiak hazi, nekiak
5. Neure etxe pobria, Burgos dana

Aukerak: hasi / eskapurik ez / baiño hobia / urrixa / ni hemen

OÑATIERAZ EGOGI

'Xaten-Notsan'

Oso zabaldua dago indikatiboko nor-nori-nork lehenaldixan 'xaten' aditz laguntzaillia ebalia 'notsan' ebalia orde. Ikusi dagigun adibide batzuk:

* *Esan xaten fateko eta enostan kasurik egin.*

* *Emun xaten diruarekin fan zan errekaduak egittera.*

* *Ekarri xaten alkondaria egunero jantzen dau.*

Aditz forma horrein orde, beste honeik ebal biharko gittuke:

Esan notsan fateko eta enostan kasurik egin.

Emun notsan diruarekin fan zan errekaduak egittera.

Ekarri notsan alkondaria egunero jantzen dau.

Orduan:

Gaur esan xat, baina atzo esan notsan.

Gaur emun xat, baiña atzo emun notsan.

Gaur ekarri xat, baiña atzo ekarri notsan.

Esaera Zaharrak
1. eskapurik ez / 2. urrixa / 3. ni hemen / 4. hasi / 5. baiño hobia

Sinonimuak
1-C / 2-D / 3-E / 4-A / 5-B

Kurtzegramia
1. kirten / 2. matralla
3. lorrer / 4. purterre
5. loka / 6. obatu

Beste modu batera esabn
1. begrik ez batu
2. bekozkuia ifiñi
3. etsitta egon
4. marmaxika edo murmuxetan ibilli
5. horregatio!

Dagokixon aditza jarri
1. xate / 2. gaizu / 3. baleu / 4. zotsan / 5. zeike

ERANTZUNAK



Korpus eguneko arratsaldeko dantzak

Korpusietako jaixak gaiñian dittugunez, laister helduko xaku Oñatiko kale eta auzuetan dantzarixen fan-etorriak ikusteko eta euren kaskaiñolak entzuteko aukeria. Makiña bat ordu sartzen dittue dantzarixok Korpus aurreko egunetan hasitta, batian eta bestian eten bariko ibilleretan. Baiña ekiñaldirik gogorrena, jakiña, Korpus egunian bertan eukitten daue: goiz asko ekitten xaue parrokiarako bidian santuen karriuari lagunduaz; elizako meza nagusittan be dantza egitten daue aldarian iragoko berrogetaka urtietan; eta batez be prozosiñuan bertan jarduten daue aurrera eta atzera fan-etorri ikusgarrixan.

Baiña dantzok eztira akabaitten goizian. Arratsaldian be saixo ederra egitten daue Foruen plazan, Oñatiko korpus-dantzen errepertorixo osua eskiñiz: kontrapasa, banakua, kuadrúa, launakua, zortzikua eta arkudantzia. Eta jaıldxorri amaieria emuteko, aureskuia egitten da. Horretarako, ikusten daguen jentiaren artetik neska bat atara eta bere aurrian buruketan dittue aureskuaren zati bixak. Gero beste neska batzuk be aukeraketan dittue aureskuia borobilketako eta neska-mutillok sueltuan dantza egiñaz bukaketan da jaixa.

Dana dala, orain dala hirurogei urte justu aldaketatxo bat egon zan. Neskak ikuslien artetik atara biharrian, aurretik gertatutako taldetxo bat izan zen aukeratutakua. Jose Mari Agirrebaltzategi abade oñatiarrak gabonetarako eta beste ospakizun batzuetarako sortutako taldeko dantzarixak ziran. Poxpolin jantzitta urten euen, ikusi zeikenez. Hori urte haretan bakarrik egin zan. Hona, ezkerretik eskumara, neska-mutil gaztion izenak:

Jose Luis Oleaga; Manttoni Uranga; Rexu Letamendi; Rosarito Berrikano;
Pili Mugartza; Amparo Billar; X. X.; eta Jexus Altzelai.

J.E

Fotografixia 1955eko bagillaren 9an atarata dago eta guri Rexu Letamendik eskuratu dosku. Argibidiak, berriz, Rexuk berak, Amparo Billarre eta Jexus Altzelaik emundakuak dira. Milla esker!

> ZUZENKETIA

Orain hurrengo hilleko argazki zaharrian akats bat egin geben. Erdiko illarako ezkerreko lehenengo mutiko bixak eztira Ramon eta Juanito Arkauz, Ramon eta Juanito Zelaia baiño, Zubillagako Kukarrueneko anae birkixak.



GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Administrazioa eta Finantzak goi mailako zikloa ikasten Oñati Gestio Heziketan

Itziar Bueno Arrizabalaga
Legazpia



Eskaintza akademikoa

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

Ate Irekien Jardunaldia

Ekainak 17 18:00

Matrikula
Uztailaren 16tik 21era

Zergatik aukeratu zenuen enpresa kudeaketa arloko goi mailako ziklo bat egitea?

Irteera zabalak dituelako gehienbat. Edozein enpresetan lan egiteko aukera eskaintzen du eta are gehiago, enpresa mailan departamentu askotan lan egin dezakezulako ziklo honekin.

Zergatik aukeratu zenuen Oñati Gestio Heziketan burutzea zure ikasketak?

Bi arrazoi nagusi izan diren. Aise batetik, badakit enpresekin harreman handia duen zentro bat dela eta praktika bolondresak egiteko aukera badagoelako, horrela errazago da enpresa mundua ezagutzea ikasle zaren bitartean.

Bestetik, irakasleei dagokionez unibertsitateko irakasleak direnez ikasketen kalitatea oso altua da.

Nola bizi izan duzu ikasturte hau?

Irakasleak gertutasun handia dute, eta hurbiltasun horrek laguntza maila altua suposatzen du ikasketak aurrera eramateko. Unibertsitate giroa hamasteren dugu. Erakin berdinean titulazio desberdinak egotea aberasgarria da guretzat ze bertan erabiltzen diren metodologia berritzai ketar baliatzen gara.

Eta etorkizuna?

Hurrengo urteari begira praktikak egingo ditut eta lan mundura begira lehen esperientzia izateko aukera ona da. Dena dela ziklo honetan zehar ikusten ari naizen moduan ezinbestekoa da arrakasta profesionala izateko jarrera aktibo bat izatea. Oñati Gestio Heziketan erabiltzen den metodologia ikasleak teknikoetatik gaur egun enpresek eskatzen dituzten kompetentzia eta jarrera horiek lantzen ditu.

Eta honetaz gain aukerak ere baditugu ikasketa unibertsitarioak burutzeko konbalidazio batzuen bitartez.

Gomendatuko zenioke lagun bati ziklo hau egitea?

Batxilergotik datozen ikasleentzat aukera ona izan daiteke, ez badaukate oso garbi zer ikasi, lagungarri izan daitekelako bidea argitzea: bi urteko ikasketak dira, ondo formatzen dutenak eta lan esparruan sartzeko aukera eskaintzen dutenak. Gainera denbora tarte horiek heldutasun maila bat fortzen laguntzen du ondoren erabakiak argiago hartzeko.

Bestalde, aurretik beste ikasketa batzuk eginda edota langabezian daudenezat, lan arloan eskatzen den profila osatzeko aukera ematen du lan merkatura gerturatuz.